

GLOBALIZAZIO KAPITALISTA NEOLIBERALEAN L A N A DEFENDATZEKO GIDALIBURUA





Argitalpen hau Lanaren Begia Globalizazioan izeneko kanpainaren testuinguruan egin da eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak finantzatu du.

1 edizio, Langileen Batzordeko "Serafín Aliaga" Bakea eta Elkartasuna Fundazioa
Madril, 2003

Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa
Uribitarte, 4. 48001-Bilbo
Telefona: 94 424 34 24
Faxa: 94 424 38 98
Posta elektronikoa: pazzsolida-ed@euskadi.ccoo.es
www.observatoriodeltrabajo.org/euskadi

Jatorrizko edizioa: "Lanaren Begia Globalizazioan", Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren babesarekin

Jatorrizko koordinatzailea: Eva Fernandez

Euskadiko edizioaren koordinatzailea: Monica Alonso y David Pinilla Muñoz

Maketazioa: XiP Multimedia/Txemi Peñas

Itzulpena: Hitzurrun

Inprimategia: Imprenta Sacal

Lege Gordailua:

Aitortza -Ez Komertziala- Eratorritako lana 2.5 España

Honako gida honek Creative Commons-en baimena du.

Lan hau askatasunez kopiatu, banatu eta zabaldu daiteke, beti ere egiletza aitortzen bada eta helburua komertziala ez bada. Gida hau beste lan bat egiteko oinarritzat erabil daiteke, jatorrizko lanaren baimen baldintza berberak izanez gero.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es/>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES**

Dirección de Cooperación al Desarrollo



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. ATALA. Lan egokia, mehatxupearan dagoen giza eskubidea	7
1. LANA GIZA ESKUBIDE GISA	9
1.1. Lana egiteko eskubidea dugu?	9
1.2. Zergatik aldarrikatu behar dugu lana?	10
1.3. Zer da lan egokia?	12
1.4. Mehatxuak lan egokiari	14
1.5. Gizarte sektore kaltetuenak	18
2. ZERK MEHATXATZEN DU ZURE LANA?	23
2.1. Hazkunde ekonomikoa gizakiaren garapenaren aurretik jartzea	24
2.2. Iparralde-Hegoalde zuloa handitzen ari da	25
2.3. Demokraziari eraso egitea	30
2.4. Krisi ekologikoa areagotzea	31
3. GLOBALIZAZIOAREN ZER ERAGILEK ERAGITEN DUTE ZURE LANEAN?	33
3.1. Nazioarteko Finantza Erakundeak	33
3.1.1. Nazioarteko Diru Funtza	33
3.1.2. Munduko Bankua	35
3.2. Munduko Merkataritza Erakundea	36
3.3. OCDE	39
3.4. G8	40
3.5. Nazioz gaindiko enpresak	40

2. ATALA: Lana eskubideekin defendatzeko modua	43
4. PARTE HARTU	46
4.1. Global Unions	48
4.2. Nazioarteko Konfederazio Sindikala, CSI	48
4.3. Sindikatuen Aholku Batzordea, TUAC	49
4.4. Nazioarteko Sindikatuen Federazioak, FSI	50
4.5. Europako Sindikatuen Konfederazioa, CES	54
5. INFORMA ZAITEZ SINDIKATUEK GLOBALIZAZIOAREN ERAGILEEI BEGIRA EGITEN DUTEN LANARI BURUZ	55
5.1. Nazioarteko Finantza Erakundeak direla-eta	55
5.2. Munduko Merkataritza Erakunde delata-eta	57
5.3. OCDE delata-eta	61
5.4. G8 delata-eta	61
5.5. ETNak direla-eta	62
5.5.1. Nazioarteko Lan Harremanen antolakuntza sindikatuen bidez aurrera egiteko moduak	62
5.5.2. LANEren eta OCDEren nazioarteko arauen erabilgarritasuna	67
5.5.3. Enpresen gizarte erantzukizuna zaintzea	71
6. ELKARTASUNEZ JOKATU	79
6.1. Garapen iraunkorraren aldeko borroka	80
6.2. Munduko ekonomia aldatzearen aldeko borroka	83
6.3. Bestelako mundu baten aldeko borroka	86
6.4. Pobreziaren aurkako borroka	90
7. LANKIDETZA	91
7.1. Garapenaren finantzaketa: Garapenerako laguntza ofiziala	91
7.2. Espainia	93
7.2.1 Euskadi	94
7.3. GGKEen Lankidetza Garapenerako	94
7.3.1 Euskadiko GGKEen koordinakundea	95
7.4. Sindikatuen Lankidetza Garapenerako	96
7.5. Bakea eta Elkartasuna	97
7.5.1 Euskadiko Bakea eta Elkartasuna	98
7.6. Lan arloko elkartasun esperientziak	101
GLOSARIOA	108
ESTEKA GOMENDAGARRIAK	110

AURKEZPENA

Bakea eta Elkartasuna Fundazioak, hasiera-hasieratik, lankidetzan diharduten erakunde nahiz pertsonekin batera lan egin du, Latinoamerikan batez ere. Duintasunez bizitzeko duten eskubidearen alde ez ezik, bertakoen eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ere defendatu ditu. Era berean, langile guztien elkartasuna eta inplikazioa bilatu izan du zeregin horretan.

Gure ustez, mundurako garapenen eredu bidezkoagoa soilik lortuko da Hegoaldea eta Iparraldearen arteko lankidetzan bultzatuz eta bata bestearekin ikasiz. Eredu horren barruan, ekonomiaren hazkundeak, gizarte egitura demokratikoa, gizarte zuzena, generoen arteko berdintasuna, giza askatasuna, ingurumen iraunkorra eta kulturen arteko errespetua lortzeko aukera emango du.

Hegoaldeko herrialdeetako Sindikatuen Erakundeak indartzea lehentasunez lortu beharreko helburua da CCOOn eta Bakea eta Elkartasuna Fundazioan. Horren erakusgarri dira bai Latinoamerikako erakundeekin egiten ari diren lankidetzako proiektuak bai Lanaren Behatokia Globalizazioan izeneko Kanpainak.

Nagusi den garapen ereduak, globalizazio prozesuaren emaitza gisa munduko ekonomia antolatzen duenak, ez ditu munduko biztanle gehienek lan eskubideak bermatzen. Azken urteotan Iparraldean nahiz Hegoaldean finkatutako politiken eraginez eskubideen urraketak areagotu baino ez dira egin.

Egoera horren aurrean, nazioarteko sindikalgintzak erronka handiari eutsi beharko dio, izan ere, antolatutako indar gehienak biltzen ditu, eta berak du, halaber, alternatiba bateratua eraikitzeke gaitasuna. Ildo horren harira, nazioarteko sindikatuen lankidetzak ezinbesteko tresna da, hala langileen nola Hegoaldeko herrialde guztien garapenari begira. Herrialde garatuetakoa langileok elkartasunez jokatu behar dugu eginkizun horretan eta globalizazioa sortzen ari den laneko eta gizarteko dumpinari aurre egin beharko diogu.

Hori dela-eta, gizarte sentsibilizazio kanpainak beharrezkoak dira. Gida hau informazioa jasotzeko eta hedatzeko tresna bat da. Horren laguntzaz, Laneko Nazioarteko Arauak defendatuko ditugu eta Hegoaldeko sindikatuen erakundearen alde egingo dugu.

Felisa Piedra
CCOO Euskadiko Nazioarteko Idazkaria
Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren Lehendakaria



1. Atala

Lan egokia



**mehatxupear dagoen
giza eskubidea**



1. LANA GIZA ESKUBIDE GISA

1.1. Lana egiteko eskubidea dugu?

Lana oinarrizko giza eskubidea da, eta horrela jasotzen da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsean¹. Enplegu duina justizia sozialaren printzipioen artean dago.

23. Artikulua

Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.

*Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan bera-
gatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.*

Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

1948ko Giza Eskubideen Adierazpena

¹Giza Eskubideen Deklarazio Unibertseala, NBEren Batzar Nagusiak 217 A (III9) ebazpenaren bidez onartua eta aldarrikatua, 1948ko abenduaren 10ean. Lanaren Begia Globalizazioaren (OTG) Web orrian koltsulta daiteke: www.observatoriodeltrabajo.org



Giza Eskubideak

"Gizon eta emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela". "Giza Eskubideak gizonei eta emakumei atxikitzen zaizkie, gizakiak izate hutsagatik" Eskubide horiek Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpenean jasoak ageri dira, arau eta kontzeptu gisa. 148 herrialdek berretsi zuten, adierazpena garatzeko ardura duten beste lege erakunde batzuekin batera. Giza Eskubideak betearaziz gero, gizakiaren duintasunaren biziraupena bermatu, eta pertsona orok indibidualki nahiz sozialki erabat garatzeko aukera izango du.



Lana/enplegua

Lan terminoa lan ordainduari buruz hitz egiteko erabiltzen dugu. Halere, ezin ahaztu merkataritza-koak ez diren lan egiteko moduak ere badirela, hala nola erreprodukzio lana (etxeke lana), guztiz ezinbestekoa duintasunez bizi ahal izateko. Erreprodukzio lana emakumeek egiten dute nagusiki. Lan hori, ordea, ikusezin bihurtzen dute sistematikoki bai ekonomia estatistikek bai gizarteak.

1.2. Zergatik aldarrikatu behar dugu lana?

DUINTASUNEZ BIZITZEKO BITARTEKO BAT DA

Lana bizitzari eusteko eta oinarrizko beharrak asetzeko bitartekoa da. Era berean, lanaren bidez pertsonak beren nortasuna finkatzeko aukera ere badute, bai beren baitarako eta baita inguruan dituztenen aurrean ere. Lana ezinbestekoa da, aukeraketa pertsonalak egiteko, familiaren ongizaterako eta gizartearen egonkortasunerako.

Jendeak nahi duenaren esentzia iraunkor mantentzen da beti, kulturen eta garapen mailen bitartez. Guztiek bilatzen dute bidezko aukera bat, ahalegin indibidualarekin bizitzan aurrera egiteko. Baina bigarren aukera bat ere nahi izaten dute, arriskuak hartu eta porrot egiten dutenean. Bazterkeriak gehiago beldurtzen du jendea aldaketak eta porrotak baino.

Juan Somavía²

²LANE (2001), *Reducir el déficit de trabajo decente un desafío global*. Geneva, LANE. In OTG www.observatoriodeltrabajo.org

EZ DA SALGAI BAT

Filadelfiako Adierazpenaren lehen printzipioak Lanaren Nazioarteko Erakundearen helburuak eta helmugak zehazten ditu. 1944ko maiatzaren 10ean eginiko adierazpenak dioenez, lana ez da salgaia. Ekonomiari buruzko ikerketek frogatu dutenez, lana gutxieneko baldintzetan egitera behartzen denean ekonomia ez da eraginkorra.

Pertsonak ezin gara egon merkatuaren gorabeheren mende. Lan bat egiteagatik jasotzen den soldata da pertsona gehienek bizitzeko duten aukera bakarra, hau da, beren oinarrizko beharrak eta familiarenak asetzeko. Beraz, enplegua ezinbesteko bitartekoa da gizakiaren garapenerako.

Ekonomiaren teoria konbentzionalak ere onartu behar izan du, soldatek edo gizarte estaldurek produktibitatean duten eragin positiboa. Hori dela eta, zalantzan jartzen hasi dira dagoeneko -hasiberriak dira- lan malgutasuna delakoak ekonomien funtzionamenduari jartzen dizkion mugak. Ohartarazi dutenez, hazten ari den enplegu egongaitzaren prozesuak makroekonomia eta produktibitate antzua ekarriko du.

Amat Sanchez³

³Pau i Solidaritat (1999), Trabajo y Desarrollo. Globalización de la economía e internacionalismo obrero. País Valencia, Fundació Pau i Solidaritat.



Lanaren Nazioarteko Antolaketa

Nazio Batuen erakunde espezializatu honek gizarte justizia eta nazioartean onartutako lan eta giza eskubideak sustatzeko ahalegina egiten du. Hartzen dituen erabakiak Nazioarteko Zuzenbidean sartzen dira zuzenean. Estatuak erabakiak berresten dituztenean, estatuaren barruko eskubide bilakatu, eta nahitaez bete behar dira. 1919an sortutako erakunde hau da Versaillesko Tratatuak geratzen den emaitza garrantzitsu bakarra. Tratatu horretan Nazioen Elkartea sortu zen, 1946an Nazio Batuen lehen erakunde espezializatua bihurtuko zena. Erakundea hiru alderdik osatzen dute, enpresa munduko ordezkariak, langileen erakundeak eta gobernuek.



Mundializazioa- Globalizazioa

Nazio ekonomiak munduko ekonomia bateratuan txertatze prozesuari deritzo globalizazioa. Bereziki garrantzitsua da ondorengo esparruetan: munduko inbertsioen mugimenduan, ekoizpen prozesuen banaketan, merkataritzaren hazkundean eta kapitalaren mugimendu azkarrean -espekulatiboan denean batez ere-, eta nazioarteko finantza merkatuetan. Gertakari honekin batera, kultur homogeneizatze prozesua ere hazten ari da mende-baldeko industria kulturaren eraginez (iparramerikarra bereziki). Dena den, terminoa oso eztabaidagarria dela eta eginiko definizio guztiak oso ideologikoak direla esan behar da.

1.3. Zer da lan egokia?

Lan egoki batek aukera emango die langileei, beren gaitasunak eta ezagutzak ahal bezain ongi erabiltzeko eta guztion ongizateari ekarpena egiteko.

Lan egokia Lanaren Oinarrizko Arauak betetzen dituen lana baino ez da izango. Hau da, adingabea izan gabe egiten dena, baztertzeko ez gaituena, era askean hautatu duguna, askatasun sindikalaz gozatzeko aukera emango duguna eta kolektiboki negoziatzeko aukera emango duguna.


LANE

ZER DIRA LANAREN OINARRIZKO ARAUAK?

Lanaren Oinarrizko Arauak LANEk egin zituen. 1998an eginiko Lanaren Nazioarteko Biltzarreko 86. ekitaldian, lanaren oinarrizko eskubideei eta printzipioei buruzko Adierazpena egin zen. Horren bidez, langileen eskubideei zor zaien errespetua sendotu, eta mundializazioaren eragin negatiboak murriztu nahi ziren.

Adierazpen horrek funtsezkotzat hartzen diren zortzi hitzarmen jasotzen ditu:

- 87. eta 98. zk., askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruz,
- 29. eta 105. zk., lan behartua abolitzeari buruz,
- 100. eta 111. zk., lan bazterkeriaren prebentzioari eta lan berdina-gatik berdina ordaintzeari buruz.
- 138. eta 182. zk., haurren lanari buruz.



**Lehen Mundua/
Bigarren Mundua/
Hirugarren Mundua
Erdialde/Periferia.**

**Herrialde garatuak/
Garatzen ari diren herri-
aldeak. Iparra/Hegoa.
Herrialde Aberatsak/
Herrialde Txirotuak**

II. Mundu Gerraren ondoren eta indar guztiak bi bloketan metatzearen eraginez, ekonomia eredu kapitalista zuten herrialdeei -hasieran, Europako herrialde kapitalistak, AEBak, Kanada, Australia, eta gero, Japonia- "Lehen Munduko" izena eman zitzaizen "Bigarren Munduko" herrialdeetatik, hau da, herrialde sozialistetatik bereizteko helburuarekin. Ondoren, 60ko hamarkadan "Hirugarren Mundua" izena erabiltzen hasi zen aurreko bi izenpeetan sartu ezinezko herrialde "azpigaratuak" izendatzeko. Multzo horretan Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialde gehienak sartu ziren, asko eta asko kolonien inperioen mende egondakoak.

HERRIALDEEK ZENBATERAINO ERRESPETATU BEHAR DITUZTE LANAREN OINARRIKO ARAUAK?

Adierazpen honen balio nagusia da estatu kideek ez dituztela oinarrizko hitzarmenak berretsi behar lotesleak izateko (hau da, betebeharr juridiko gisa eratzeko).

LANEren Nazioarteko Biltzarrak hartutako hitzarmenen eta gomendioen bidez garatzen dira lanaren nazioarteko araudiak. Dena den, bere eginkizun nagusia lan eskubideak arautzeari lotuta egon arren, LANEk kontrol eta ikuskaritza lana ere egiten du, baina zigortzeko ahalmenik gabe.

Munduko bost herrialdeetatik bik ez dituzte betetzen askatasun sindikalaren (145 herrialdek berretsia), sindikatuan izena emateko eskubidearen eta negoziazio kolektiboaren eskubideak (154 herrialdek berretsia). Horrek esan nahi du urratze bikoitza egon dela, berretsitako hitzarmenak izateaz gain, lanaren oinarrizko arauak direlako.



Erdialde-Periferia izen-dapenak, berriz, erreferentzia egiten dio herrialdeek era autonomoan beren ekonomiak nazioartean garatzeko duten gaitasunari. Herrialde periferikoek mendeko ekonomiak dituzte lanaren eta ekoizpenaren munduko banaketaren barruan, eta erdialdeko herrialdeen garapen gaitasunaren mende daude.

GKEek maiz erabiltzen duten **Iparra/Hegoa** definizioaren bidez, konnotazio ideologikorik gabeko irizpide geografikoa ezarri nahi zen, herrialde txiro gehientsuenak munduaren hegoaldean daudela egiaztatuta. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu Iparraldeko herrialdeek beren "hegoaldeak" dituztela, eta hegoaldean ere desberdintasunak egon badirela. Iparraldeko hogeita hamar herrialdek NPGaren %80 dute.

1.4. Mehatxuak lan egokiari

ENPLEGUAREN ETENA⁴

LANEren 2006ko Enpleguaren Munduko Joeren txostenak egiaztatzen duenez, 2005. urtean zehar munduko pertsona langabeen kopurua berriro igo zen, munduko ekonomiaren hazkundeari buruzko datuak onak izan arren.

Txosten honek honako datu hauek eskaintzen dizkigu:

- Munduko BPGa %4,3 hazi zen, baina horren eragina ez zen berbera izan lan merkatuan. Lana zuten pertsonen kopurua igo arren, pertsona langabeen kopurua urte amaieran 191,8 milioira iritsi zen. 2004an baino 2,2 milioi pertsona gehiago eta 1995ean baino 34,4 milioi gehiago. Hori dela eta, munduko langabeen tasa %6,3 da.
- Geografiaren ikuspegitik, Ekialde Hurbila eta Afrika Iparraldea dira langabezia tasa altuena duten eremuak. Pertsona langabeen hazkunde nagusia, berriz, Latinoamerikan eta Kariben gertatu da.
- Langabeziak emakumeei eta gazteei eragiten die gehien. Oraindik ere, emakumeenak dira langabezia tasa altuenak. Bestalde, munduko langabeen ia erdiak gazteak dira, eta lanerako adina dutenen %25 baino ez daude lanik gabe.

Baina zifrak zehatzak dira eta lanak edo langabeziak ez dute ezer argitzen lanaren kalitateari edo jasotako soldatai buruz. Enplegatuen kopuru horien barruan ezkutatzen dira, besteak beste, emakume azpi enplegatuenak, lanegun luzeak, soldata eskasak eta eskubiderik gabeko lanak.

⁴LANE Geneva (2006), Lan globalaren joerak

Herralde txirotuetan, langabezia bera baino gehiago, enplegua duten pertsonen lan baldintzak dira arazo nagusia. Hau da, soldatak, gizarte segurantzaren sistemen babesa edo babesik eza, edo eskubide sindikalen ukazioa.

SOLDATEN ETENA⁵

Lan egokiaren defizita antzemateko adierazle ekonomiko argia dago. Horren arabera, gizonak eta emakumeek lanean beren buruak eta beren familiak pobreziatik ateratzeko adina irabazten ote duten jakin dezakegu.

2005ean munduko 2.800 milioi langiletatik ia 1.400 milioi ez zuten nahikoa diru irabazten beren burua eta beren familiak pobreziaz mugaren gainetik mantentzeko, hau da, beren diru sarrerak ez ziren iristen 2 dolarrean egunean. Horien artean, 520 milioi pertsonaren eguneko diru sarrerak ez dira dolar batera iristen, eta muturreko pobrezian bizi dira.

Ehunekotan adierazita, kopuru horren barruan sartzen dira langileen %49,7 (eta garatzen ari diren herrialdeetako langileen %58,7) eta langile guztien %19,7 (garatzen ari diren herrialdeetako %23,3).

Era berean, gaizki ordaindutako lanetan lan eskubideak ere oso urriak izan ohi dira.



⁵LANE Geneva (2006), Lan globalaren joerak



Herrialde garatuak eta garatzen ari diren herrialdeak

izendapena, berriz, nazioarteko instituzioek erabiltzen dute, guk berragozpen ikusten dizkiogu: bata, garapen eredu posible bakarra onartzea, hau da, mende-baldeko eredu kapitalista-ekologiaren ikuspegitik mundu osoan hedatzea bidera ezina dela frogatu da-; eta bestea, hegoaldeko herrialdeak garatzen ari direla esatea, askoren bilakaera ekonomikoa negatiboa izan baita 80ko hamarkadatik.

Amaitzeko, **herrialde aberats eta herrialde txirotu** terminoak prozesu bat izendatzeko erabiltzen dira. Horren arabera, hainbat herrialdek aberastunak metatu dituzten bitartean, beste batzuk txirotu egin dira. Horrez gain, terminologia horrek adierazten digu naturala baino gehiago errentaren banaketa herrialdeen arteko desberdintasunen eragilea den prozesuaren emaitza dela.



Gidan ez dugu bereizke-
tarik egingo. Nolanahi
ere, argi geratu da zein
zaila den oso desberdi-
nak diren herrialdeak
-India, Argentina edo
Txad- termino berean
biltzea.

ESKUBIDEEN ETENA

Gaur egun, oraindik ere, munduko hainbat herrialdetan sindikatuak eratzeko eta biltzeko askatasunaren eskubidea ukatzen da, lan behartua egiten da, haurrek lana egiten dute eta bazterkeriak bere hartan jarraitzen du. 218 milioi haur daude haurren lanaren mende.

Lan Ikerketen Nazioarteko Institutuaren azken emaitzek adierazten dutenez, gutxi gorabehera bost herrialdetatik bik arazo larriak dituzte askatasun sindikalari dagokionez. Herrialde gutxi batzuen legediak baino ez ditu sindikatuak debekatzen; dena den, oraindik ere, herrialde askotan eskubide sindikalak ez dira behar bezala babesten.

Globalizazioan lanaren behatokia

BABESAREN ETENA

Munduko langileen %20k bakarrik jasotzen dute gizarte babes egokia. Bestalde, 3.000 pertsona hiltzen dira egunero lan istripuen edo lan gaixotasunen eraginez.

Ekonomia globalean gertatzen diren aldaketa azkarrek lehiakortasuna areagotzen dute, eta lan segurtasuna murrizten. Horrez gain, lan munduko egoera kolokan jartzen dute etengabeko aldaketek, eta horrek bigarren mailako ondorio negatibo asko eragin ditu. Diru sarrera gutxiko sektoreetan, esate baterako, arriskuan jartzen dira oinarritzko diru sarrerak. Diru sarrera handiko sektoreetan, berriz, larritasunak, depresioak eta nekea maizegi antzematen dira lantokietan.

ELKARRIZKETA SOZIALAREN ETENA

"Ordezkaritza defizita" dago lan munduan; izan ere, askotan, arrazoi bat edo beste tartean dela, langileak ezin dira antolatuta beren ahotsa entzunarazteko.

Nekazariak, etxeko langileak, sektore publikokoak eta etorkinek oztopo zehatzak izan ohi dituzte askatasun sindikalean aritzeko. Halaber, Industria Zona Frankoetan (IZF) elkarrizketa soziala galarazita dago. Gogoan izan, mundu osoko 43 milioi langilek (emakumeak gehienak) egiten dutela lan zona horietan.

Bestalde, toki guztietan, ekonomia informaleko langileak hiruko elkarrizketatik kanpo daude edo ordezkariak murrizta dute. Antolatuta daudenean ere, bitarteko instituzionalen gabeziak galarazi egiten die elkarrizketan jardutea.



Industria Zona Frankoak (IZF)

Zona Frankoak 70eko hamarkadan hasi ziren sortzen hegoaldeko herrialdeetan, Erdialdeko Amerikan nagusiki. Ongi mugatutako industria eremu hauek merkataritza askeko gune gisa eratzen dira, hau da, herrialdeko merkataritza eta aduana zergen sistemetatik kanpo. Bertako edo atzerriko enpresak kokatu, eta beren produktioaren zati nagusia esportatu egiten dute. Horrez gain, zerga eta aduana pizgarriak esker, lan eskubideak murrizteko edo ez betetzeko aukera dute -eskulan merkea erabiltzea (baita haurrena ere), lan baldintza prekarioak izatea eta sindikatuak sortzeko eskubidearen zein oinarritzko beste lan eskubide batzuen murriztea-.

1.5 Gizarte sektore kaltetuena

HAURREN LANA

LANEK haurren lanari buruz eginiko azken txostenaren arabera, 2004an 218 milioi haur langile zeuden eta horietatik 126 milioik, gutxi gorabehera, lan arriskutsuak egiten zituzten. Oraindik ere, kopurua oso altua den arren, LANEK baikor izateko arrazoiak badirela adierazi du. Izan ere, azken lau urteetan haur langileen kopurua %11 murriztu da; eta jaitsiera horren barruan bereziki nabarmendu behar da %26 murriztu dela lan arriskutsuak egiten dituzten haurren kopurua.

LANEren arabera, 1989an nazioarteak onartutako Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eragin nabarmena izan zuen haurren lanaren zenbatekoetan antzemandako hobekuntzan. Horren harira, nazioarteko adostasuna dago gaitz horrekin lehenbailehen amaitzeko. Dena den, azaroari aurre egiteko metodoetan adostasuna ez da hain agerikoa. Halere, denek onartzen dute eskolatzeko aldia luzatzeak lotura zuzena duela haurren lanaren adierazpen gogorrenen murrizketarekin.

Sindikatuaren mugimenduaren ustez, eztabaida sortu behar da sindikatuaren artean. Mendebaldearen ikuspegitik, ordea, arazoa konpontzeko debekuak ezarri behar dira. Nolanahi ere, zenbait kasutan, debeku hutsak lan egiten duten haurren egoera okertzea eragin dezake. Gogoz kontra bizi duten egoera hori gairatuz, alternatibak eskaini behar zaizkie haurrei.

Haurren lanari aurre egiteko ez dago konponbide errazik, ezta hegoaldeko herrialdeen testuingurua aintzat hartu gabe bideratu daitezkeen konponbiderik ere. Alternatibak bilatzeko, herrialde txirotuen sindikatuek eta iparraldeko herrialdeen sindikatuek gogoeta bateratua egin behar dute; eta jakina, gogoeta horretan haurren parte-hartzea ziurtatzea ezinbestekoa izango da.



vendido

EMAKUMEEN LANA

Emakumeek munduko lan orduen %70 egiten dituzte, baina soldaten %10 bakarrik jasotzen dute⁶. Tradizionalki emakumeek egin izan dute etxeko lana, soldatarik jaso gabe: seme-alaben zaintza eta heziketa, elikadura, garbitasuna edo familia kideen zaintza. Azken hamarkadetan, emakumeak lan merkatuan sartzearekin batera, "enplegua femenino" bilakatzeko joera antzeman da. Nolanahi ere, etxeko lanaren zama handiena emakumeak darama oraindik ere. Gainera, lan hori ikusezina da, eta gizarteak ez du oso aintzat hartzen.

"Emakumearen lanegun hirukoitzari" buruz hitz egiten da, hau da, lan produktiboa, etxeko lana edo erreprodukzio lana, eta horrez gain, parte-hartze sozialeko lana. Hirugarren alderdi hori ezinbestekoa da globalizazio neoliberalak emakumeengan duen eragin zuzen eta zehatza ulertzeko. Herrialde askotan estatuek alde batera utzi dituzte sarbide unibertsaleko zerbitzu publikoak, hau da, gizarte laguntzari eta zaintzari lotutakoak. Horrelako zerbitzu asko eta asko pribatizatu egin dira, eta sarbide unibertsaleko diru laguntzak murrizten joan dira.

Lan produktiboari dagokionez, emakumeak lan merkatuaren behe mailan daude oraindik, eta antzeko lanak egiten dituzte beti. Halaber, aginte gutxi edo batere ez duten lanpostuak betetzen dituzte, gizonek baino soldata txikiagoak jasoz. Gainera, lan ordaindua egiten duten emakumeak kokapen ahulago batetik abiatzen dira; izan ere, lan eskubideen murrizketak eta urraketak maizago gertatzen dira emakumeak nagusi diren sektoreetan. Era berean, emakumeen merkataritza lana gizonen ordezkotzat hartzen da oraindik ere.

⁶Emakumeen Munduko Martxa



Emakumeen txirotzea

Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) 1995ean eginiko Giza Garapenaren Txostenaren arabera, munduko 1.300 milioi txiroen artetik %70 emakumeak dira. Bestalde, emakumeak dira ere munduan dauden 900 milioi analfabetoen %66.



Maquilak

Nazioz haraindiko talde handientzat azpikontratatu gisa lan egin ohi duten enpresak dira. Ehungintzan eta mikroelektronikaren sektoreetan aritzen dira normalean. Langile gehienak emakumeak izan ohi dira eta lan baldintzak, berriz, oso gogorak: lanegun amaigabeak, soldata miserableak, askatasun sindikalaren bortxaketa eta bestelako gordinkeria ugari.

Ekonomia informalean lan gehiago sortzen da emakumeentzat gizonentzat baino. Nekazaritzakoa alde batera utzita, emakumearen lan indarraren erdia baino gehiago ekonomia informalean dago. Enplegu autonomoak eta etxez etxe egiten denak emakumeei lan indarrean parte hartzeko aukera zabaldu die, alabaina, horrekin batera haien lan egoerak okerrera egin du: segurtasunik eza, irabazi urriak, diru sarrera duinen eta lege babesaren gabezia.

Era berean, eskulan intentsiboko produkzio lana egiten duten enpresa askok alde egin dute garatzen ari diren herrialdetara. Maquila enpresen adibideak erakusten duenez, emakumeak askotan sartzan dira lan merkatuan, lan eskubiderik gabe, protesta egiteko aukerarik gabe, soldata urriekin eta gehiegizko lanegunekin.

LANGILE ETORKINAK

Gaur egun 180 milioi langile etorkin daude (munduko biztanleen %3, gutxi gorabehera). 1975etik bikoiztu baino gehiago egin da etorkinen kopurua. Fluxu horren %47,5 emakumeek osatzen dute eta proportzioa areagotzen ari da etengabe, horrek erakusten du migrazio fluxuetan emakumeen parte-hartzea geroz eta handiagoa dela.

CIOStik dioenez, "nazioarteko konbentzio eta hitzarmen askok etorkinentzako lan tratu berdintasuna hitzartu duten arren, lan baldintzei, soldatei, gizarte segurantzari eta eskumen sindikalei lotutako hitzarmenak dira gutxien berretsi direnak". LANEk 1949an hartutako lehen hitzarmena 45 herrialdek baino ez dute berretsi (97. hitzarmena). Bestalde, 1975etik berretsi zitekeen 143. hitzarmena 19 herrialdek baino ez zuten sinatu.

Era berean, 1990ean Nazio Batuen Batzar Orokorrek langile etorkinen eskubideak jasotzen dituen Nazioarteko Hitzarmena egin zuen. Hitzarmena 34 estatu kidek bakarrik berretsi dute, eta gehienak garatzen ari diren herrialdeak dira. Sinatzaileen artean ez dago etorkinen eskulan gehien jasotzen duten Ipar Amerikako edo Europako herrialde bakar bat ere.

Miseriatik eta heriotzatik ihesean datozen milaka eta milaka langilek espero ez duten errealitatearekin egiten duten topo Iparraldera iristean: lan merkatu arautuan sartzeko zailtasunak, esklabotasunetik gertu dauden lanak, lanegun amaigabeak... Eta hori guztia gutxi ez balitz bezala, kriminalizatuak eta baztertuak izaten dira. Etorkinen benetako "erreserba gudarosteak" sortu dira, eta kapitalismoa hori baliatzen ari da oinarritzko lan baldintzak urratzeko eta lan eskubideak ezabatzeko. Horrez gain, etorkinen jatorrizko herrialdeak goi mailako adimena eta gaitasuna duen jenderik gabe geratzen ari dira.



2. ZERK MEHATXATZEN DU ZURE LANA?

NAHI EZ DUGUN GLOBALIZAZIO NEOLIBERALA

Globalizazioak geroz eta gehiago menderatzen du jende arruntaren eguneroko bizimodua, izugarri eragiten baitu lan baldintzetan eta soldateetan. Egoera horrek herrialde guztietako jendearengan du eragina. Halaber, enpleguaren segurtasun baldintzak okertu dira eta irabaziak soldaten gaintik jarri. Horren ondorioz, XXI. mendearen lehen urteotan egoera larrian daude ia mundu osoko langileak. Aberatsen eta pobreen arteko aldea, eta gizonen eta emakumeen artekoa geroz eta handiagoa da garatze bidean diren herrialdeetan nahiz herrialde industrialetan. Era berean, nazioarteko ekonomia erakundeek geroz eta menderatuago dituzte garatze bidean diren herrialdeak. Aberastasunak inoiz ez bezala ari dira metatzen eta biltzen, eta pobreziaren gorakadak ez du etenik. Erabakiak hartzearen gaitasuna pertsonetatik gehiegi urrundu izanaren sentimendua ere nagusitzen ari da.

CIOSL

Globalizazio neoliberala

Herrialdeetako ekonomiak nahitaez integratu behar izaten dira, erakunde, politika eta gobernu demokratikorik gabeko nazioarte testuinguruan.

Gaur egungo merkatu globaletan, finantza kapital espekulatiboaren eta nazioz gaindiko enpresen interes pribatuen nahia nagusitzen da. Irabazia epe motzera bilatzen dute, munduko biztanle gehienek pobrezia alde batera utzita. Horrez gain, gobernu askoren laguntzarekin, laneko eskubideak eta kostuak murriztu nahi dira, produktuak lehiakorragoak izan daitezzen.

Globalizazio kapitalista neoliberalaren ezaugarriak:

2.1. Hazkunde ekonomikoa gizakiaren garapenaren aurretik jartzea

Azkeneko lau hamarkadatan munduko desberdintasun egoera areagotu da. Hazkunde ekonomikoaren fruituak ez dira berdin banatu. Horren eraginez, pobrezia eta gizarte polarizazioa areagotu egin da, eta munduko pertsona gehienak gabezi egoeran utzi ditu.

Neoliberalismoak norbanakoaren metatzeari garrantzi handiagoa ematen dio gizarte ongizateari baino. Merkatuak desberdintasunak orekatzeko eragile gisa duen gaitasunean gehiegizko konfiantza izatearen ondorioz, laneko oinarrizko eskubideen babesa ahuldu da eta interes ekonomiko pribatuei lehentasuna eman zaie. Erabilitako argudioaren arabera, enpresaburuek metatutako aberastasun pribatuak tantaka isuriko dira, gizartearen gehiengora arte.

Argudio horrek, ordea, talka egiten du egunero pobrezia eta desberdintasunaren zenbakiekin. Munduko biztanle pobreenek (%40), hau da, eguneko bi dolar baino gutxiagorekin bizi diren 2.500 pertsonak, munduko diru sarreren % 5dute. Bestalde, aberatsenek (%10) diru sarreren %54 dute⁷. Nazio Batuen Erakundeak⁸ dioen moduan, munduko bost biztanleetatik bat -1.200 milioi pertsona- eguneko dolar bat baino gutxiagorekin bizi da, eta egoera horrek emakumeei eragiten die batez ere.



Neoliberalismoa

Joera ideologiko hau 70 hamarkadako krisialdiari emandako erantzun gisa sortu zen (krisialdi hark zorraren krisia eragin zuen Hegoaldean eta Ongizate Estatuarena Iparraldean).

Neoliberalismoaren arabera, ekoizpenaren kostu handiek, Ongizate Estatu mantentzeko prezio publikoen igoerak eta horiek mantentzeko zergek eragin zuten egoera hori.

⁷NBGP Urteko Txostena (2006), "Una Alianza Mundial para el Desarrollo" New York.

⁸NBE (2000), Nazio Batuen Milurtekoaren Txostena. New York, NBE.



2.2. Iparralde-hegoalde zuloa handitzen ari da

Desberdintasun hori etengabe ari da handitzen: "duela 40 urte munduko biztanle aberatsenen %20k errentaren %70az gozaten zuten eta 2000. urterako %90az jabetu ziren. Beste muturrean eta denbora tarte berean, biztanle pobreenen %20aren diru sarrerak %2,3tik %1era jaitsi dira⁹."

Hegoaldeko biztanleen pobretzeak bi gai nagusitan uzten du agerian Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanaren asimetria: lehena, herrialde pobreek lau hamarkada baino gehiagotan jasan behar izan duten merkataritza trukearen gainbehera, eta bigarrena, subiranotasuna galdu izana. Azken horrek lotura zuzena du, ekonomia globalizatuaren testuinguruan, herrialde horietan sortutako kanpo zorrarekin eta bazterkeria egoerekin.

Miseria egoerak bere hartan dirau, azken mendeen gizakiaren bizi baldintzak historia osoan zehar baino gehiago hobetu diren arren. Munduko aberastasuna, nazioarteko harremanak eta gaitasun teknologikoa inoiz ez bezalakoak dira. Hobekuntza horien banaketa, ordea, ikaragarri desberdina izan da.

Munduko Bankua¹⁰

⁹NBGP (2000), Giza garapenari buruzko txostena. Madril. Mundiprensa.

¹⁰Munduko Bankua (2001), Garapenari buruzko txostena 2000/2001. Pobreziaren aurkako borroka. Washington. Munduko Bankua.




Neoliberalismoaren oinarriak

Neoliberalismoaren oinarrien arabera, hazkunde ekonomikoa izango litzateke krisia gainditzeko bidea. Horretarako, lehendabizi enpresa irabaziak areagotu beharko lirateke, gero, merkatuan berriro inbertitzeko, enplegua sortuz eta ekonomia berpiztuz. Beraz, hona hemen eman beharreko pausoak: inflazioari aurre egitea; banaketa berriro egitea baina ez zergen bidez, soldaten kontura baizik -horrela lan merkatuaren baldintzak malgotu eta ekoizpen kostuak murriztuko dira-, eta pribatua dena publikoaren aurretik jartzea.

ESPEKULAZIOAREN ALDE EGITEA

Herrialde pobretuen ekonomiak finantza bideak zabaltzera behartu dituzte, epe motzeko inbertsioen ondorio larriak gehien jasan ohi dituzten herrialdeak diren arren. Mexikoko krisialdiak 94an, Asiako krisialdiak 97an, Errusiako krisialdiak 98an edo, berriki, Argentinan izandakoak agerian uzten dute garatze bidean diren herrialdeetan inbertsio espekulatibo horiek izandako eragina. Alde batetik, kapitalaren sarrerak tokiko monetaren balioa handitzen du, eta herrialde pobretuen ekonomiek nazioartean lehiatzeko duten gaitasuna murrizten du; bestalde, masako irteerek eragindako porroten eraginez, interes tipoak nahitaez igo behar izaten dira, kapitalen ihesa saihesteko. Horrek ondorio latzak izan ohi ditu, inbertsioan, ekoizpenean eta enpleguan¹¹.



Munduan egunero egiten diren 1,5 bilioi dolar inguru finantza transakzioetatik, %1 bakarrik erabiltzen da aberastasun berriak sortzeko; gainerakoak izaera espekulatiboa du. Ekonomia errealarari lotutako kapitalaren mugimendua ordezkatzen duen ZIAK (Zuzeneko Inbertsio Atzerritarra) kanpoan uzten ditu garatze bidean diren herrialdeak. Hain zuzen, gutxien aurreratutako herrialdeek (GAH) inbertsio mota horren %0,4 jasotzen dute; aldiz, herrialde garatuak %75 jasotzen dute¹² (AEBek munduko inbertsio atzerritarren 10 dolarretik 7 jasotzen dute)¹³.

¹¹Manuel Iglesia (2003), "Políticas económicas solventes", in Ya es hora de cumplir. Plataforma 2015 y más. Madrid.

¹²UNCTAD (2002), Munduko Inbertsioei buruzko txostena, Geneva, UNCTAD.

¹³Joaquin Arriola (2005), La deslocalización empresarial: ¿problemas para unos, desarrollo para otros, riesgo para los derechos laborales? III Escuela sindical de Verano.

TRUKE DESBERDINTASUNA INDARTZEA

Afrikak, Asiako Hego-ekialdeak eta Latinoamerika munduko esportazioetan duten parte-hartzea %1 areagotuko balitz, ateratako irabaziekin 128 milioi pertsonen pobreriaz izateri utziko liokete.

OXFAM¹⁴

Errenta baxuko herrialdeek, munduko biztanleen %40k, munduko merkataritzaren %3 baino gutxiagoan parte hartzen dute. Herrialde aberatsek merkantziak eta zerbitzuak esportatzen dituzte, biztanleko irabazkinaren 6.000 inguru dolarreko balioarekin. Haatik, zifra horren baliokidea garatze bidean diren herrialdeetan 330 dolarrekoa da, eta 100 dolarren azpikoa errenta baxuko herrialdeetan.

UNCTADk¹⁵ diotenaren arabera, garatze bidean diren herrialdeek 700 mila milioi dolar inguru galtzen dituzte, herrialde industrialen babes politikek galarazitako esportazioen kontzeptuan. Hori guztia, CADren Garapenerako Laguntza Ofizialaren balioa 2005ean 106 mila milioi dolarrekoa izan zela aintzat hartuz.

Azken lau hamarkadatan gauzak okertu egin dira merkataritza trukeari dagokionez¹⁶. Arazo bakarra ez da oinarrizko produktuen prezioa jaitsi izana -garatze bidean diren herrialdeek industri produktu kopuru bera erosteko, 70eko hamarkadan lehengaien halako bi esportatu behar dituzte gaur egun-. Horrez gain, iparraldeko produktuen diruz lagundutako prezioaren eraginez, hegoaldeko nekazariei ezinezkoa zaie, beraien herrialdeetan bertan, iparraldeko produktuekin lehiatzea. Izan ere, herrialde aberatsetan nekazaritzaren sektoreak jasotzen duen diru laguntza Garapenerako Laguntza Ofiziala baino bost aldiz handiagoa da.

¹⁴OXFAM (2002), *Cambiar las reglas: comercio, globalización y lucha contra la pobreza*. Madril, OXFAM.

¹⁵UNCTAD (2002), *Munduko Inbertsioei buruzko txostena*, Geneva, UNCTAD.

¹⁶16Centro Nuevo Modelo de Desarrollo (1999) *Norte-Sur. La fábrica de la pobreza*. Madril, Editorial Popular.



Truke desberdina

Iparraldean garapen teknologikoaren laguntzaz ekoiztutako produktuen prezioa igo ohi den moduan, hegoaldeko lehengaien eta nekazaritza produktuen bilakaera gorabeheratsuagoa izan ohi da. Urrutira joan gabe eta Oxfamek dioenaren arabera: "hiru urtean kafearen prezioa %50 jaitsi da gutxienez, eta duela 30 urteko mailara iritsi da".

Teoria liberalaren arabera, merkatua eremu bat da. non interesdunak lehia ari diren beren interesak asetzeko. Halaber, teoria horrek dioenez, guztion onura egoismo partikularren batuketa eginez lortuko da. Dena den, errealitateak agerian uzten duen moduan, merkatua lehia askearen eremua baino gehiago, enpresek, herrialdeek eta presio talde boteretsuek kontrolatutako eremua da. Nazioz gaindiko korporazio handiek munduko merkataritzaren %70 kontrolatzen dute.

KANPO ZORRA AREAGOTZEA

Herrialde pobretu guztien zorra eta horren ordainketa (kapitalaren + interesen amortizazioa) etengabe hazi da azken 20 urteetan, herrialde horiek zorra zerbitzuaren ordainketa arian-arian bete duten arren denbora horretan. Itxuraz paradoxa dirudien arren, zorraren zenbatekoa ez da gutxitu, aitzitik, 1982ko abuztuan zorraren krisialdiak eztanda egin zuenean baino lau aldiz handiagoa zen zorraren zenbatekoa 1999an (datu berrienak urte horri dagozkie). Munduko Bankuak emandako datu berrien arabera, 1999an herrialde pobretuen kanpo zorra 2,6 bilioi estatubatuar dolarrekoa zen, (Global Development Finance, 2001)¹⁷.

Herrialde pobretu guztiek epe luzera duten aldi biko (bi herrialderen arteko zorra) zor osoa aintzat hartuz, Espainiako Estatuarekin epe luzera hartutako kanpo zorra %2 ingurukoa da. Zenbatekoa 532.800 milioi dolarrekoa da¹⁸.

¹⁷UNCTAD (2002), Munduko Inbertsioei buruzko txostena, Geneva, UNCTAD

¹⁸David Lister (2005), Zorrari buruzko behatokiaren txostena. La Deuda Externa Española.



Garapenerako Nazio Batuen Programaren arabera, bederatzi herrialdetan zorra zerbitzuaren ordainketak urteko osasun eta hezkuntza gastuak gainditu zuen. Halaber, 29 herrialderen osasun gastua gainditu zuen. Herrialde horietatik 23 Saharaz hegoaldeko Afrikan kokatzen dira, planetako gunerik zigortuenean.

1998an, Hegoaldeko herrialdeek 350.000 milioi dolar baino gehiago transferitu zituzten Iparraldera zorraren ordainketan. Zenbateko hori Iparraldeko herrialdeek urte berean Garapenerako Laguntza Ofizial gisa ordaindutako zenbatekoa halako zazpi da ia-ia. Zorraren zerbitzu gisa ordaintzen denaren ia erdia interesak dira. Beraz, eginiko ordainketek ez dute zor osoak hazteko duen joera geratzeko gaitasunik.

Zorra moralaren eta legearen kontrakoa da eta herrialdea industrializaziorik gabe uzteko bidea izan da. Zorra eredu horren ardatza da. Ordaindutako peso bakoitzak herriaren pobrezia areagotzen du eta hori onartezina da.

Victor De Gennaro, CTA



Kanpo zorra

Kanpo zorra Hegoaldeko herrialdeek bankuei, Iparraldeko herrialdeei eta Finantza Erakunde Multinazionaleri (NDF, MB eta Erregioetako Bankuak) zor dieten diru kopurua da. Herrialde horien gobernuak iraganen jaso zituzten eta gaur egun ordaindu ezin dituzten maileguen ondorioz sortutako zorra da. Diru hori 70 hamarkadan utzi zen batez ere, munduko herrialde aberatsek sobera diru baitzuten garai hartan. Beraz, iparraldetik hegoaldera zihoan diru jariora hasi zen, diru irabazien tasa areagotzeko ideiarekin. Horrek ez zuen batere arriskurik; izan ere, enpresek edo bankuek jasotako dirua itzultzeko ahalmenik ez bazuten, estatuek bere gain hartuko zuten zorra, eta Estatu batek ezin du kaudimengabea izan.

2.3. Demokraziari eraso egitea

Ikusi dugun moduan, globalizazio neoliberalak Iparraldeko herrien alde egiten du. Munduko erakundeak demokratikoak ez diren bitartean, hau da, Hegoaldeko herrialdeek biztanle kopuruaren arabera parte hartzeko aukerarik ez badute eta Iparraldeko nahiz Hegoaldeko erakunde sozialen eta sindikalen elkarrizketa ahalmena herrialdean bertan eta nazioartean indartzen ez bada, nekez lortuko dugu gizakiaren garapen iraunkorrean aurrera egitea.

Multinazionalak eta nazioarteko finantza erakundeek herrialdeetako demokrazien aurka egiten dute, estatu-etan berebiziko garrantzia dituzten gizarte aldaketak eraginez, biztanleak aintzat hartu gabe. Egoera horren aurrean, biztanleek ezer gutxi egin dezaketela sentitzen dute.

*"Demokraziaren defizita hazten ari da, herrialde-
etako politikek merkatu globalaren etengabeko
presioa izaten dute, eta askotan, gobernuen
arteko lehia biziagoa da enpresen artekoa baino.
(...) Hain zuzen, guztion onuraren alde egiteko eta
jendearen borondatea adierazteko erakunde
globaletan dagoen demokraziarik ezak adieraz-
ten du, askotan, boterea pasatzen ari dela hau-
tatutako gobernuetako liderren eskuetatik hautatu
gabeko kapital globalaren liderren eskuetara".*

CIOSL

Maniobra hori guztiarekin batera eragile ideologikoa ere abian jarri zen, horren arabera, herrialde pobretuei azpigarapena gainditzen laguntzen zitzairen. Datu bakar bat: gaur egun zor handiak dituzten herrialde asko diktadura zibil edo militarren agintepean egon ziren, eta jasotako maileguak, besteak beste, armak erosteko -gizartearen protestak isilarazteko erabiliak-, herrialdeetako eliteen luxuak ordaintzeko edo haien liderra goraiatzeko obra erraldoiak egiteko erabili zituzten. Herritarrek ez zuten onurarik jaso, eta zenbaitetan maileguak ez ziren herrialdean sartu ere egin; izan ere, dirua paradisu fiskaletako bankuetan gordetzen zen askotan. Horrelako adibide batzuk aipatzearren, Aljeria, Argentina, Bolivia, Brasil, Salvador, Tailandia,...

2.4. Krisi ekologikoa areagotzea

Ingurumen arazoak munduko ekonomia kapitalistaren emaitza dira. (...) Kapitalismoa izan da gizakiaren etorkizuneko bizitza bideragarria kolokan jarri duen sistema bakarra. Izan ere, Historian zehar, Lurra osorik bildu duen sistema bakarra izan da eta ekoizpena eta produkzioa aurretik imajina ezina zen moduan hedatu ditu.

Immanuel Wallerstein

Krisi ekologikoari buruz hitz egiten dugunean adierazi nahi dugu, gaur egungo gizakiaren jarduera globalak -eta zehazkiago ekonomikoak- ingurumenean duen eragina jasangaitza dela eta planetan bizitzeko aukera arriskuan jar dezakeela. Egoera hori ingurumenerako kaltegarriak diren teknologien bidez egindako ekoizpen masiboaren eta kontsumo masiboaren ondorioa da, batez ere. Iparraldean eta hegoaldean bizi diren pertsonen kontsumo mailaren desberdintasuna aintzat hartzen badugu, ezin da esan biztanleak direnik ekologiaren krisia azaltzeko aldagai nagusia, askotan hori planteatu izan den arren.

Globalizazioak, ordea, nabarmen eragiten du krisi ekologikoaren areagotze horretan, jarduera ekonomikoa hedatzearen alde egiten duelako nagusiki, eta, horrez gain, araudi guztiak (sozialak, ekologikoak,...) saihesten dituelako.

Adibide gisa, Hegoaldeko ekologiaren hondamena areagotzen duten eta globalizazioari estuki lotuta dauden hiru prozesu aipa ditzakegu: lehena, munduko merkatuan eskaintza urria duten herrialdeek eginiko baliabide naturalen ustiapen masiboa; bigarrena, inbertsioak erakartzeko garapen erronkaren barruan eginiko ingurumenaren txikizioa; eta azkena, jarduera kutsakorrek Iparraldeko herrialdeetatik Hegoaldekoetara lekualdatzea, hori egitea herrialde aberatsen ingurumen legedira egokitzea baino merkeagoa baita.





3. GLOBALIZAZIOAREN ZER ERAGILEK ERAGITEN DUTE ZURE LANEAN?

3.1. Nazioarteko Finantza Erakundeak

IFI izeneko erakundeak, hau da, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua (MB), II. Mundu Gerraren ondoren sortu ziren Bretton Woods hirian (1944). Nazioarteko ekonomia suspertzeko xedearekin sortu ziren, merkataritza, finantza eta diru trukeak antolatuz eta kudeatzeko.

3.1.1. NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA

ZAINZKEKO ARRAZOIAK

Martxan jartzen dituen politikak neoliberalak pobrezia, zerbitzu publikoen privatizazioa (hezkuntza eta osasuna), lan prekarioa eta langabezia eragiten dute, Hegoaldean nagusiki baina baita Iparraldean ere.

NDFk laneko eskubideak doikuntza aldagai modura erabili ditu, eta eskubide horiek murrizteko presioa egin du.



Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

Arazo ekonomikoak konpontzeko eratu zen, hain zuzen, II. Mundu Gerraren ondoko munduko merkataritza eta finantza sistemen egoera bideratzeko. Bere helburu nagusiak diruaren arteko parekotasuna zaintzea eta kanpo zorrak dituzten herrialdeei laguntza ematea izan dira. Horretarako maileguak banatu ditu, erakundeak osatzen duten herrialdeek eginiko ekarpen ekonomiekin. Herrialde bakoitzaren botoak duen pisua ordainketa kuotaren arabera da; beraz, erabakiak herrialde aberatsenen ikuspegitik hartzen dira (AEB eta EB), horiek baitira kuotarik altuenak ordaintzen dituztenak. Gehienetan, NDFren programak onartzen dira, programa hartuko duen herrialdearen parlamentuak horren berri izan gabe.

Kanpo zorraren ordainketaren berregituraketak negoziatzeko baldintza gisa, NDF Egitura Doikuntza Programak (EDP) ezartzen ari da 1979az geroztik.

EDPren paradigma politikoa hiru D izenarekin da eza-guna, hau da, Deflazioa, Debaluatzea eta Desarautzea. Egitura Doikuntza Politika hauek honako inplikazio hauek dituzte:

- Enpresa publikoak pribatizatzea (finantza publiko-en hondamenditzat jo izan dira).
- Kontsumitzaileentzat funtsezko produktuentzako diru laguntzak amaitzea.
- Merkataritza oztopoak murriztea.
- Atzerriko kapitalari ezarritako kontrolak eraistea.
- Gastu publikoa murriztea (horrek eragina dauka erretiroaren edo langabezia aseguruaren erregimen publikoetan, kaleratzeak sustatzen ditu eta soldata publikoak mugatzen ditu).
- Kontratatze eta kaleratze arau malguagoak txertatzea.
- Hitzarmen kolektiboen irismena mugatzea.



3.1.2. MUNDUKO BANKUA

ZAINTEKO ARRAZOIAK

Munduko Bankuak pobrezia murriztearen eta gizartearekin elkarrizketa bideak zabaltzearen garrantziaz hitz egin ohi du. Baina 50 urtean bilioi erdi dolar banatu ditu maileguen bidez, honako ondorio hauekin: murrizpenak gizarte gastuan edo laneko malgutasunean, eta pribatizazioak.

Herrialde pobretuei maileguak emateko baldintza da NDFaren Egitura Doikuntza Programak (EDP) dagokion herrialdean martxan jartzea. Horrek esan nahi du erakunde horrek ez duela aintzat hartzen Kopnehageko Goi-bileran hartutako 8. Konpromisoa, hau da: "Egitura doikuntza programak hitzartzen direnean, horien barruan, besteak beste, gizarte garapenerako helburuak zehaztu -batez ere pobreziarekin amaitzeari begira-, enplegu produktiboa sustatu eta gizarte integrazioa hobetzeko ildoak finkatu behar dira."

2000. urteko otsailean eginiko Meltzer Txostenean, nazioarteko batzorde batek txostena egin zuen nazioarteko finantza erakundeak aholkatzeko. Bertako ondorioak latzak ziren: Munduko Bankuaren baliabideen %80 ez dira herrialde pobreenetara bideratzen, interes tipo altuenak dituzten herrialdeetara baizik. Beraz, horri esker, MBren kapitala are gehiago handitzen da nazioarteko merkatuetan. MBk %20 baino ez du erabiltzen bere helburu nagusia betetzeko, hau da, pobrezia amaitzeko.



Munduko Bankua (MB)



Formalki garapen erakunde den arren, garapenerako finantzaketan gehien eragiten duen erakunde multilateralala ere bada.

Hasiera batean, II. Mundu Gerran suntsitutako eremuak berreraikitzea zen bere helburua, Marshall Planaren bidez. Gaur egun, ekonomiaren garapena sustatzen du, PAEen ezarpena baldintzatzen duten maileguak eta laguntza teknikoa emanez. Herrialde kideak -NDFen bezala- akziodunak dira eta erabakitzeke ahalmena beren gaitasun ekonomiko erlatiboaren arabera da.

Kopnehageko Goi-bilera



Nazio Batuen

Gizarte Garapenari buruz 1995ean eginiko Munduko Goi-bilera da. Historian lehen aldiz, Estatu eta Gobernu buruak bildu ziren, gizarte garapenaren eta gizakiaren ongizatearen garrantzia aitortzeko. Hartutako konpromisoen artean honako hau aipa daiteke: "ekonomia eta gizarte politiken oinarritzko ardatza erabateko enpleguaren helburua sustatzea izango da."



3.2. Munduko Merkataritza Erakundea

ZAINZKEKO ARRAZOIAK

Ez du bere gain hartzen berme demokratiko bakar bat ere, Estatu baten hiru botere nagusiak biltzen dituelako: exekutiboa, legegilea eta judiziala.

MMEk derrigorrezko erregimen juridikoa ezarri du. MMEn sartzen diren herrialdeek erakunde horren arau guztiak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, eta arau horiek ezartzea eragozteko bide bakarra, kide guztiak aho batez onespena ematea da. Adostasunik ezean, adostasun negatibo deritzona jartzen da abian; prozesu horretan, aditu talde batek txostena egiten du, eta herrialde guzti-guztiak horren kontra agertzen ez badira, era automatikoan onartzen da.

Bi herrialderen artean merkataritza gatazkarik gertatzen bada, eztabaidak konpontzeko organoak argitzen du auzia; organo horrek aginte exekutiboa eta judiziala du -zigorrak ezartzeko eta bere legedia sortzeko eskumena du-. Auziak konpontzeko, panel bat eratzen da (aditu batzordea). Taldeak atea ixita egiten ditu bilerak. Erabakiak oso bizkorak izaten dira, eta, batez ere, erantzunezinak; horrez gain, presio lobbyek eragin handia izaten dute horietan.

Pobrezia eragiten du Hegoaldeko langileen artean.

MMEren misioa merkataritza jarioen zirkulazioan ahalik eta erraztasun eta askatasun handiena bermatzea da. Bere printzipioen artean bazterkeriarik gabeko merkataritza eta Hegoaldeko herrialdeen alde egin beharra aipatzen diren arren, trukearen desorekak bere hartan dirau. Izan ere, herrialde aberatsenek atea ixten dizkiete Hegoaldeko produktuei, eta, aldiz, Hegoaldeko herrialdeak behartuta daude atzerriko produktuei atea zabaltzera.



Munduko Merkataritza Erakundea (MME)

1995ean sortu zen, merkataritza liberalizatzeko eta nazioarteko integrazio ekonomikoa sustatzeko. GATTen ordez (Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusia) sortutako erakundea da. 134 herrialdek osatzen dute -sartu berri den Txina kontuan hartuz- eta bere hitzarmenak iraunkorrak dira.

MMEren ezaugarri nagusietakoa izan da beren burua hautatu ohi duten taldeen bilerak egitea, gaiak era pribatuan negoziatzeko.

Herrialdeek MMEren derrigortasunak betetzen dituztela bermatzeko herrialdeen emaitza ekonomikoak aztertzeaz arduratzen den Merkataritza Politikak Aztertze Mekanismoa (MPAM) bi urtez behin berrikusten dute "Lau aldekoa" deritzoneko herrialdeek (Estatu Batuak, Kanada, Europar Batasuna eta Japonia). Garapen bidean diren 16 herrialde mekanismo hori lau urtez behin aztertzen dute, eta gainerako kideek, sei urtez behin.

Eztabaidak konpontzeko organoaren aurrean aurkeztutako 170 helegiteetatik 50 Estatu Batuek jarriak dira, hirugarren herrialdeetan sartu ahal izateko liberazioa eskatzeko.

Herrialde pobreenek ez dute gaitasunik, ez ekonomikorik ezta teknikorik ere, eztabaidak konpontzeko organoaren aurrean kexak aurkezteko, eta ebazpen gehienek demanda aurkezten duten herrialdeei ematen diete arrazoia.

Ez die lehentasunik ematen laneko eta ingurumeneko estandarrei.

MMEk ez du inoiz merkataritza eztabaidarik konpondu laneko eskubideen edo ingumen estandarren alde eginez. Are gehiago, bere ebazpen askoren ondorioz apaldu egin behar izan dira ingurumenari buruzko legeriak.

Genetikoki eraldatutako produktuak merkaturatzeari oztopo oro kentzeko erabakia aipa dezakegu adibide gisa. Horren bidez, hormona artifizialez hazitako behi haragiari merkatuak zabaltzera behartu zuen MMEk EB eta 108 mila euroko merkataritza isuna jarri zion.

**Dumping
soziala**



Enpresek herrialde askotako langileen artean dauden babes eta ordainketa mailen desberdintasunak erabiltzen dituzte, eskulan merkeena hautatzeko.

**Jabetza
intelektualaren
eskubideak**



Jabetza intelektualaren irabaziei buruzko eskubide pribatuak dira, hala nola egile eskubideak edo patenteak. 1995ean sinatutako TRIPSAk (merkataritzarekin lotutako jabetza intelektualaren eskubideei buruzko alderdiak) gutxieneko maila agintzen du, MMEko kideek eman beharreko jabetza intelektualaren babesari dagokionez. Hauek dira TRIPSAren ondorioak Oxfamen arabera: "Garatze bidean diren herrialdeek 40.000 milioi dolar inguru galduko dituzte urtero, Iparraldeko nazioz gaindiko enpresei lizentzia ordainketak areagotzearen ondorioz. Estatu Batuek osoaren erdia bereganatu dute".

Liberalizazioaren ondorioa da, halaber, "dumping soziala" izeneko gertaera. Herrialdeak elkarren artean lehiatzen dira multinazionalak beren lurraldeetara erakartzeko. Horretarako, besteak beste, sindikatuen eta gizartearen eskubideak murrizten dituzte.

MMEren eragina nabaria da ere, honako eremu hauetan:

Patenteak: GATTk ondasunen merkataritza bakarrik kontrolatzen zuen; MMEk, aldiz, gai berriei buruzko legeak egin ditu, horren adibide dira, jabetzea intelektualaren gaineko eskubideei buruzko legeak. Horien bidez, nazioz gaindiko enpresa bioteknologikoez izaki bizidunen (animaliak nahiz landareak) jabetza lortu dute, DNAren sekuentziazioaren bidez.

Zerbitzuen merkataritzan ere eskumenak ditu. Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorrak (ZMAO) hainbat zerbitzurekin merkataritza egitea onartzen du, esate baterako: osasunarekin, hezkuntzarekin eta ingurumenarekin. Horrek orain arte zerbitzu publikotzat hartuak zirenak pribatizatzeke aukera ematen du.

Dohako erronda:

2001eko azaroan Dohan (Qatar) eginiko laugarren ministerioko batzarreko adierazpenean jasotako aginduaren arabera, nekazaritza, industria eta zerbitzu trukeak liberalizatu, eta 2004. urte amaierako hitzarmenak lortu behar ziren.

Hasiera batean, negoziazioen bidez herrialde pobretuentzako irtenbideak proposatuko zirela zirudien. Alabaina, nazioarteko merkatuaren liberalizazioa zen benetako helburua, potentzi handien, enpresen eta botere taldeen (lobbyak) interesen alde egiteko.



Zerbitzuen merkataritzari buruzko akordio nagusia (AGCS/GATS dira ingelesezko siglak)

MMEren Akordio horrek berariazko konpromisoak jasotzen ditu, zerbitzuen sektoreko merkatua liberalizatzeke.

Etengabeko trabak jasan ondoren, negoziazioak erabat eten ziren 2006. urteko erdialdean, herrialde aberatsek nekazaritza laguntzak kentzeari uko egin ziotelako. Hori zen, hain zuzen, garatze bidean ziren herrialdeen eskaera.

FAOren arabera (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea), Dohako errondaren porrota izan zen, alde batetik, herrialde pobretuen interesak ez zirelako behar bezala aintzat hartu, eta bestetik, "bidezko merkataritzan baino gehiago merkataritza askean" jarri zelako arreta gutzia.

3.3. OCDE

OCDEren betekizuna nazioartean politika globala koordinatzeko erakunde gisa eratzea da. OCDEk nazioarteko hitzarmenak sustatzen ditu, Enpresa Multinazionalen zuzendutako OCDEren Jarduera Illoak dira horren adibide garbia. Era berean, Garapenerako Laguntza Batzordeak, garapenerako laguntza ematen duten herrialdeen koordinazioa bideratu, ikerketa ekonomikoak egin eta informazio estatistikoa banatzen du. Azken finean, OCDE herrialde industrializatuen politika ekonomikoen eta sozialen erdigune ideologikoa da -hainbat hamarkadatan zehar neoliberalismoaren eraginpean egon dena-.



Ekonomia Lankidetzan eta Garapenerako Erakundea (OCDE)

Erakunde hori 1960an sortu zen gizarte eta ekonomia politiken zehaztapenean, herrialde kideak koordinatzeko eta aholkatzeko. Politika horien artean, garapenerako nazioarteko kooperazioari buruzkoa sartzen da. 1948an Marshall Planaren laguntzak bideratzeko sortutako Europako Lankidetzan Ekonomikorako Erakundea ordezkatu zuen OCDEk. Aberatsak, demokratikoak eta merkatu ekonomia duten 30 herrialde industrializatuk osatzen dute.



8 herrialderen taldea (G8)

Planetako 8 herrialde indartsuenek osatutako taldea da (Alemania, Kanada, AEB, Frantzia, Britainia Handia, Italia, Japonia eta Errusia). Sorreran (1975) 7 kide ziren, eta gero Errusia sartu zen, lehendabizi partzialki (1995) eta ondoren erabat (2002). Foru horretan, herrialde kideek ekonomia, merkataritza eta politikari buruzko erabakiak koordinatzen dituzte.



Nazioz gaindiko enpresak (ETN)

Hasiera batean, herrialde bat baino gehiagotan ekoizten duten enpresak dira. Globalizazio neoliberalaren ezinbesteko eragileak dira eta munduko ekonomia jardueran parte-hartze handia dute, ekoizpen, merkataritza nahiz finantza arloetan.

3.4. G8

G8n nazioarteko harremanetan eragin handia dituzten gai ekonomikoak, sozialak eta segurtasunezkoak eztabaidatzen dira. Halere, zaila da bere eraginaren nondik norakoa zehaztea, erabaki nagusiak herrialdeetan hartzen baitira. Dena den, begi bistakoa da haien adierazpenek jarduera ildo nagusiak finkatzen dituztela bai IFletan bai MMEn.

3.5. Nazioz gaindiko enpresak

ZAINTZEKO ARRAZIOIAK

Haien tamaina eta boterea

Nazioz gaindiko enpresen kopurua areagotu egin da: 1970ean 7.000 ziren eta gaur egun 63.000 baino gehiago dira, 800.000 eskumendeko baino gehiagorekin atzerrian. Inbertsio jarioen munduko hedapenaren eragileak dira. Nazioz gaindiko enpresak onuradun nagusi gisa dituen ZIAa (Zuzeneko Inbertsio Atzerritarra) %29,4 hazi zen 1997an, %38,7 1998an eta %27 1999an¹⁹. 350 enpresek munduko merkataritzaren %40 kontrolatzen dute²⁰.

Ez daude inolako botere demokratikoaren mende

Munduko 100 ekonomia nagusiak aintzat hartzen baditugu, 51 nazioz gaindiko enpresak dira eta 49 herrialdeak. General Motors enpresaren negozio bolumena Austriako produktu nazionala adinakoa da, Shellena Hegoafrikakoa adinakoa, eta Peugeotena Perukoa adinakoa. Nazioz gaindiko enpresek gizadiaren 4/5ek baino eragin handiagoa dute, eta beren akziodunek beste inork ez du haien gaineko kontrolirik.

¹⁹UNCTAD (2001), Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia. Munduko Inbertsioei buruzko txostena. New York eta Geneva, UNCTAD.

²⁰NBGP (1998), Nazio Batuen Garapen Programari buruzko txostena. Madril, Mundiprensa.

Estatuek ez dute haiak kontrolatzeko behar adinako indarririk, enpresa horiek duten boterea izugarria baita. Enpresak hazi ahala, eten egiten dira jatorrizko beren nazioekiko loturak, eta, aldi berean, gero eta indar handiagoa hartzen dute herrialde aberatsenen erabaki ekonomikoetan, beren matrizearen egoitza diren herrialdeen erabakietan hain zuzen ere.

Munduko politikan duten eragina

ETNak (Nazioz Gaindiko Enpresak) presio taldeetan antolatuta daude munduko erakunde multilateralen nahiz gobernu indartsuenen politiketan eragin ahal izateko (horien artean aipagarriak dira, Nazioarteko Merkataritza Ganbera, Europako Industria Mahi Ingurua eta Davosko Foroa).

Hegoaldeko eta Iparraldeko lan baldintzetan duten eragina

Nazioz gaindiko 100 enpresek 12.700.000 langile inguru zituzten, 1998an; horien artetik 6.500.000 langilek osatzen zuten atzerriko enplegua.

Munduko merkatuan beren produktuak lehiakorrek izan daitezten, nazioz gaindiko enpresek enpresa jardueraren murrizketa oro ezabatzearen aldeko apustua egiten dute. Munduaz duten ikuspegiaren arabera, arautu gabeko merkatu erraldoi bat da mundua, eta lan eskubideak ez dira hazkundera eragozten duten muga zurrun bat besterik. Mundu guztiko langileek enplegua eskuratzearren elkarrekin duten lehiak konkurrentzia desarautzea dakar. Gertaera horrek, gainera, Hegoaldeko herrialdeei nahiz Iparraldekoiei eragiten die.

Horren erakusgarri da Hegoaldean Zuzeneko Inbertsio Atzeritarrak (ZIA) izan duen hazkundera-bereziki nabarmentzekoak dira Txina, Brasil, Mexiko eta Argentina-. Konkurrentzia desarautzea deritzona eta abantaila berriak bilatzen dituzte; izan ere, herrialdeen arteko lehia gero eta zorrotzagoaren eraginez murrizten ari dira, ingurumeneko eta laneko estandarrak.



Deslokalizazioa

Kostuak aurrezteko helburuarekin enpresek finkatutako estrategia da eta ekoizpenaren zati bat egoitza sozialaren lekutik kanpo lekualdatzean datza. Horren bidez, abantailak bilatzen dira, besteak beste, eskulan merkeari, zerga edo ingurune abantaileri edo merkatuen gertutasunari dagokienez.

Hegoaldean, bien bitartean, produkzioa deslokalizatzeko mehatxuaren bidez presio nabaria egiten ari dira lan baldintzak kaskartzeko eta sindikatu-tuen jarduera eragozteko. Horrek guztiak aurrez aurre topo egiten du, ekoizpen kostuen egiturarekin eta enpresen etekinarekin.

Nikek aditzera eman duenez, maila ertaineko zapatila pare batean lanak dolar eta erdiko eragina dauka; ez da asko, kontuan hartzen badugu kontsumitzaileak 100 dolar ordaindu behar dituela zapatila horiengatik.


Jeff Ballinger, "Nikeren kontrako salaketa kanpaina"

Bidegabekeria

AEBetan, industriaren sektoreko exekutiboan eta langilean diru sarreren arteko aldea 42tik 1erakoa zen 1980an; eta 1990ean, berriz, 419tik 1erako aldea zegoen, AFL-CIO federazioaren datuen arabera. Samuelson ekonomialariak ohartarazi duenez, zuzendari orokorrek enplegatu baten batez besteko soldata baino 400 aldiz gehiago irabazten dute, gaur egun; 80ko hamarraldian, berriz, 40 aldiz gehiago irabazten zuten. Igoera horren arrazoi nagusienetakoa zuzendaritzeari eskainitako akzioen gaineko auke-rak ordaintzeko politika izan zen.



2. Atala



Lana eskubideekin defendatzeko modua



Oinarrizko beharrak asetzeari dagokionez, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko aldea handiegia da, jasangaitza, ezmorala eta elkartasun gutxikoa. Iparraldeko sindikalismoak ez du egoera hori ulertzen... Mundu globalizatuan ekintza sindikal globala beharrezkoa da; hori lortzea, ordea, ezinezkoa izango da, Iparraldeko eta Hegoaldeko langileen artean elkartasun handiagorik ez dagoen bitartean.


Luis Anderson, ORIT

Langileen arteko elkartasunak pertsona guztien lan baldintza duinen alde egin behar du. Borroka hori ez da unean unekoa; aitzitik, ekintza sindikalaren eguneroko jardura nagusia izan behar du, herrialde askotako erakunde sindikalen arteko joan-etorriko bidea ezarri ahal izateko.

Mundu globalizatuan, mundu osoko langileen errealitateen artean nazioarteko lotura dago, izan ere: langileek lan egin dezakete enpresa multinazional berean edo enpresa horrek beste herrialderen batean duen delegazioan edo azpikontratatuan; merkataritzaren ikuspegitik lehiakorrek diren sektoreetan lana egin dezakete. Halaber, beste herrialdeetako langileen pentsio funtsak eraturako kapitala duen enpresako langileak izan daitezke eta baita besteek ekoiztutakoaren kontsumitzaileak ere.

Beraz, gaur egun dugun tragediari aurre egiteko elkartasun sindikalak errukia eta unean uneko karitatea gainditu behar ditu, nazioz gaindiko izaera eta nahia duten ekintzetara pasatuz. Horrela, nazioarteko merkataritza nahiz ekoizpen prozesuetan diharduten langileengana iritsiko gara.

Nazioarteko Sindikatuen Mugimenduarekin bat eginez



CCOOn nazioarteko atxikipena

CCOO, 1996ko ekainaren 24an, CIOSSLko (Sindikatu Erakunde Librean Nazioarteko Konfederazioa) kide egin zen. Aipatzekoa da Komunikazio eta Garraio Federazioak -bere ezaugarri bereziak direla eta- ITFko (Garraioen arloko Langileen Nazioarteko Federazioa) partaide zirela ordurako. CIOSSLn sartu aurretik, CCOO CESko (Europako Sindikatuen Konfederazioa) kide egin zen, 1990ean. Garai berean, Arloko Federazio batzuk ere Europako Federazioetako kide egiten hasi ziren.

4. PARTE HARTU

Munduko langileen %85ek ez dute sindikatuetan parte hartzen. Arazo hori benetan larria da eta seriotasunez heldu beharko diogu.

Kjeld A. Jakobsen

Gaur egun, sindikatuen ordezkartza ia-ia bera da garatu gabeko herrialdeetan (%48) eta herrialde industrializatuetan (%52).

CIOSSL

Munduko industria langileen kopurua 400 milioikoa da, periferian; eta 120 milioikoa, erdialdean. Txinak OCDEko herrialde kide guztiek adina industria langile ditu.

CIOSSL

Langileek beren eskubideak aldarrikatzeko antolatu eta beren ahotsa entzunarazi behar dute, horixe da bide bakarra. Nazioartean sindikatuen erakunde nazionalak hiru konfederazio handitan eta hainbat nazioarteko federazio sindikaletan daude antolatuta. Hartaz, sindikatu nazional bateko kideak izatearen ondorioz, nazioarteko sindikalismoaren parte-hartzaileak ere bagara.

Dena den, munduko sindikatuen erronka da beren jardura ezagutaraztea eta nazioarteko ekintzei begira sindikatu nazionaletako kideen parte-hartzea sustatzea. Sindikatu nazionaletako kideek, oraindik ere, gutxi ezagutzen dute nazioarteko sindikalgintza, eta inplikazio oso txikia da. Hori dela eta, nazioarteko sindikalgintza ez du eragile globalen ekintzei aurre egiteko gutxienezko ahalmenik, eta mundu globalizatuan ezinezkoa zaio behar bezala aritzea lanaren oinarrizko arauen defentsan. Beraz, nazioarteko sindikalgintza ezagutzea eta beren ekintzetan inplikatzeko munduko sindikalista guztien erronka da.

MOVIMIENTO SINDICAL MOVIMIENTO SINDICAL MOVIMIENTO SINDICAL MOVIMIENTO SINDICAL





4.1. GLOBAL UNIONS

Munduko sindikalismoa Global Unions elkartearen antolatzen da nazioartean -euskaraz Munduko Sindikatuak-. CSIk, FSIk eta TUACK beren burua batera aurkezteko hautatutako izena da Global Unions. Halaber, web atari baten izena da, eta aipatutako sindikatu erakundeek eginiko kanpainak eta bestelako informazioa dago ikusgai atari horretan.

4.2. Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa. CSI

Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa (CSI) 2006ko azaroan sortu zen, Lanaren Mundu Konfederazioak (CMT) eta 1949an sortutako Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederazioak (CIOSL) bat egitean, kristau-demokrata lehena eta sozialdemokrata bigarrena. Horrez gain, aurretik kidetze globalik ez zuten sindikatuen erakundeak ere biltzen dira CSIn.

Bateratutako erakundeek nazioarteko sindikalgintzaren garrantzi soziopolitikoak indartzeko egindako ahaleginaren emaitza da CSI, nazioarteko konfederaziorik handiena ez bairik gabe: 307 erakunde biltzen ditu -horien artean, CCOO, UGT eta ELA- 154 herrialdetan dago eta 168 milioi langile ordezkatzen ditu.

Bere misio nagusia langileen eskubideen oinarritzko defentsa eta sustapena egitea da, sindikatuen arteko nazioarteko lankidetzaren bidez. Horrez gain, kanpainak eta ekintzak antolatzen ditu gobernuei, eta batez ere, nazioarteko erakundeetara zuzendutako -MME, MB, NDF, NBE, ...-.

CSlren eremutik kanpo ASNK (Arabiar Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioa) dugu. Bi konfederazioen arteko harremana ona da. ASNKⁿ arabiar herrialdeetako sindikatuen erakunde gehienak biltzen dira, bere egoitza Damaskon dago eta arabiar estatuen ligarekin lankidetzan aritzen da. 1956an sortu zen, eta hasieran MFStik gertu zegoen; izan ere, arabiar erakunde gehienak bertako kideak ziren.


Halaber, CSIk lotura estua du Nazioarteko Sindikatuen Federazioarekin. Federazio horrek lanbide edo industria jakin bateko sindikatu nazionalak biltzen ditu nazioartean.

4.3. Sindikatuen aholku batzordea. TUAC

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundeari (OCDE) dagokionez, Sindikatuen Aholku Batzordeak (TUAC), Parisen egoitza duenak, OCDEko kideak diren herrialdeetako sindikatu erakundeak ordezkatzen ditu erakunde horren barruan. TUACeko kide gehienak CISeko kideak ere badira. TUAC erakunde aholku emaila da, OCDEn eta bere batzordeetan. Lankidetzeta estuan aritzen da CIS eta FSI erakundeekin, politika, ekonomia, sektore eta bestelako gaiak lantzen (hezkuntza eta trebakuntza, sektore publikoaren kudeaketa, altzairua eta itsas garraioa barne). OCDEko kide diren 30 herrialdeen artean Europako herrialde gehienak, Kanada, Estatu Batuak, Australia, Zeelanda Berria, Koreako Errepublikak eta Mexiko daude.

TUACK munduko merkatuen oreka bilatzen du, gizartearen alderdi eraginkorraren bidez. OCDEko batzordeekin, idazkaritzekin eta gobernu kideekin aldizka eginiko kontsulten bidez, TUACK bere kideen arteko jarrera bateratuak finkatzen ditu eta horien ordezkaritza gisa agertzen da OCDEn, hainbat gai politikori dagokienez.

TUAC



**Posiciones
de consenso**



4.4. NAZIOARTEKO SINDIKATUEN FEDERAZIOAK. FSI

Nazioarteko Sindikatuen Federazioak nazioartean sektore jakin bateko federazioak elkartzen dituzten erakundeak dira. CISri elkartutako erakunde beregainak eta demokratikoak dira. Haien eginkizuna areagotu egin da mundializazioarekin batera; izan ere, kideen kopurua igo egin da, eta erantzukizun handiagoa bereganatu behar izan dute federazioek, beren kideek herrialde barruan konpondu ezin dituzten arazoei aurre egiteko.

Zentral sindikalak ordezkatzeko dituen CISekin alderatuta, FSiko kideak sektore, industria edo jarduera zehaztutako langileak ordezkatzeko dituzten sindikatu nazionalak dira.

FSIko kideak

Hezkuntzaren Nazioartekoa, IE

Hezkuntza sektoreko langileak ordezkatzeko ditu, eskolaurretik unibertsitate bitartean.

Eraikuntzaren eta Zuraren Langileen Nazioartekoa, FITCM

Eraikuntza, zura, basogintza eta antzeko sektoreetako langileak ordezkatzeko ditu.

Kimika, Energia, Meatzaritza eta Askotariko Industrien Nazioarteko Federazioa, ICEM.

Honako sektore hauetako langileak ordezkatzeko ditu: energia, elektrizitatea, industria kimikoak, kautxu eta plastiko industria, diamanteak, harri-bitxi, apaindura eta zeramikaren industria, paper eta zelulosa ekoizpena, beiraren industria, igeltsua, ingurumenaren babesak, harri, mineralak eta ikatza erauzketa eta hondarraren ekoizpena.

Kazetarien Nazioarteko Federazioa, FIP

Komunikabide grafiko, irrati, telebista, albiste agentzia, prentsa bulego, harreman publiko eta komunikabide elektroniko berrietako langileak ordezkatzen ditu.

Metalurgia Industriako Langileen Nazioarteko Federazioa, FITIM

Honako industria hauetako langileak ordezkatzen ditu: automotrizia, abiazioa eta aeroespazioa, ingeniari-tza mekanikoa, ontzigintza, burdina eta altzairua, ferrosoak ez diren materialak eta metala prozesatzeko industria.

Ehungintzaren, Jantzigintzaren eta Larrugintzaren sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioa, FITTV

Ehungintzaren, jantzigintzaren eta larrugintzaren sektoreko langileak ordezkatzen ditu.

Garraioetako Langileen Nazioarteko Federazioa, ITF

Garraio industriako langileak ordezkatzen ditu.

Elikagai, Nekazaritza, Hotel, Jatetxe, Tabako eta Antzekoetako Langileen Nazioarteko Batasuna, UITA.

Honako sektore hauetako langileak ordezkatzen ditu: elikagaiak, edariak, hotelak, jatetxeak, janariaren hornikuntza eta turismo zerbitzuak, nekazaritza eta tabako landaketa eta prozesatzea.



aciones

Zerbitzu Publikoen Nazioartekoa, ISP

Honako sektore hauetako langileak ordezkaten ditu: administrazio publikoak, eskualdeetako aginteen erakundeak eta instituzioak, korporazio publikoak, fundazioak, instituzio publikoak, gasa, ura eta elektrizitate enpresa ekoizle eta banatzaileak, hezkuntza, kultura eta aisialdiko erakunde publikoak, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten bestelako erakunde publiko, administrazio edo enpresak, Estatuek edo estatu komunitateek sortutako nazioarteko erakundeak. Bestalde, Estatuko irakasleak eta posta zerbitzuetako nahiz trenbide-etako langileak berariaz kanporatuak daude.

UNI, Sindikatuen Nazioarteko Sarea (Posta zerbitzuak, telekomunikazioak, komertzioak, administrari profesionalak, teknikariak, kazetariak)

Posta eta telekomunikazio zerbitzuetako langileak ordezkaten ditu.



CIOSL-IE-F
FITTVC-ITF

CGO-IE-FITCM-ICEM-FIP-FIT
TITA-ISP-FSM
CIOSL-IE-FITCM-ICEM-FIP-FIT
FITTVC-ITF-UITA-ISP-FSM
CIOSL-IE-FITCM-ICEM-FIP-FIT
FITTVC-ITF-UITA-ISP-FSM
CIOSL-IE-FITCM-ICEM-FIP-FIT
FITTVC-ITF-UITA-ISP-FSM

Lehentasunezko Jarduerak:

Nazioarteko Sindikatuen Federazioek beren kideen interesak defendatzen dituzte hainbat metodo erabiliz, horien artean honako hauek aipa ditzakegu:

- *Sindikatu eta elkartasun lana. Enplegatzaileen edo gobernuen aurkako neurriak koordinatzeko eta finantzatzeko laguntzak ere ematen ahal dituzte.*
- *Informazioa eta ikerketa. Nazioz gaindiko enpresetako jarduerari buruzko argitalpenak banatzen dira.*
- *Herritarrei zuzendutako kontzientziazio eta sensibilizazio kanpainak.*
- *Nazioz gaindiko enpresetan kideen interesak ordezkatzeko dituzte, nazioarteko erakunde eta gobernuen aurrean, esate baterako, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) eginiko lan sektorialaren bidez edo nazioarteko sindikatuen mugimenduari loturiko beste erakunde batzuen bidez.*





4.5. Europako Sindikatuen Konfederazioa. CES

Europako Sindikatuen Konfederazioa (CES) 1973an sortu zen, Europako integrazio prozesuan enpresetako nagusitasuna orekatzeko xedearekin. CESk Europako sindikatu guztiak elkartu ditu, ikusmolde ideologikoak aintzat hartu gabe eta solaskide gisa finkatu da Europako erakundeei begira. Dagoeneko, lehen pausoak eman ditu Europako zentral sindikal gisa eratzeko -Europako sindikatua-. Nazioz gairikoa sindikalgintzaren adibiderik aurreratuena dugu.

Gaur egun, Europako 34 herrialdeetako 78 konfederaziok eta Europako industriaren 11 federaziok parte hartzen dute CESn eta 60 milioi langile ordezkatzeko dituzte.

5. INFORMA ZAITEZ SINDIKATUEK GLOBALIZAZIOAREN ERAGILEEI BEGIRA EGITEN DUTEN LANARI BURUZ

Eragile global berriak direla-eta -ikus 3. puntua-, sindikalgintzaren politika eta antolakuntza indartu beharra dago, nazioartean lan munduari lotutako gai orotan jarduteko gaitasuna izan dezan. Era berean, sindikalgintzak solaskide izateko gaitasuna garatu behar du, nazioz gairako erakunde politikoei eta ekonomikoei begira -eta baita enpresa eta patronal multinazionaleri begira ere-. Gaur egun munduko sindikatuek egiten duten lana garrantzitsua da, eta aurrerantzean, sindikatu nazionalak parte hartu ahala, are garrantzitsuagoa izango da.

5.1. Nazioarteko Finantza Erakundeak direla eta

Sindikatu mugimenduak finantza erakundeei presionatzeko bideak bilatzen ditu, lankidetzaren eredu berria finkatzen eta globalizazioan alderdi soziala txerta dadin. Hartara, ekonomiaren egonkortasuna lortzeko ez da beharrezkoa izango gastu soziala murriztea.

Halaber, munduko agintearen arkitektura berria eraiki nahi da, eta erakunde horien bidez ekoizpen jarduerarekin zerikusirik ez duen munduko kapitalaren mugimendu erraldoiari erantzun nahi zaio. Izan ere, mugimendu horrek munduko ekonomia asko kolokan jartzen ditu, Asia hego-ekialdeko (1997), eta berriki, Argentinako krisialdian ikusi dugun moduan

FSM



CMT

CIOSL

MDFren ETA MBren POLITIKEK ENPLEGUAN DITUZTEN ONDORIOEN JARRAIPENA

Nazioarteko Finantza Erakundeak (NFE) CIOSLrekin biltzen dira 1999. urteko urtarrilaz geroztik, presio estrategia modura, honako helburu hauek lortzeko:

- *Herrialde pobreenen zorra arintzea eta pobrezia murriztea.*
- *Erakunde bien laguntza eta mailegu planen baldintzen artean laneko oinarrizko eskubideak sartzea.*
- *Sindikatuaren benetako parte-hartzea bideratzea, bai munduan (erakunde horiekin kontsulta egiteko estatus iraunkorra lortzearen) bai programak martxan jarriko dituzten herrialde guztietan.*

Munduko Sindikatuak lan talde bat dute, eta berori arduratzen da Nazioarteko Finantza Erakundeek. CIS, FSI eta TUAC erakundeetako kideek osatutako talde horren egoitza Washingtonen dago.

DECLARACIONES



sindicales para las cumb

Talde horrek:

- Erabateko enpleguan eta gizarte garapenean NFEek egiten dituzten politiken ondorioei buruzko ikerketak eta txostenak egiten ditu.
- Informazio eta sindikatuen presio kanpainak sustatzen ditu, Gobernuari eta NFEei aurre egiteko.
- Bestelako gizarte eragileekin lan egiten du, haien politiketan eragiteko.
- Garatze bidean diren herrialdeetako sindikatuen erakundeei zuzendutako trebakuntza eskaintzen du, bertako liderrak NFEetako solaskide izateko treba daitezen.

5.2. Munduko Merkataritza Erakundea dela eta

HELBURUAK MMEri BEGIRA

MMEri begira sindikatuen mugimenduaren lobby lana honako ardatz hauetan oinarritzen da:

- Merkataritza trukearen desberdintasuna amaitzea.
- Merkataritza hitzarmenetan laneko oinarritzko arauak errespetatzea, merkataritza hitzarmenak bigarren maila batean utziz, lan, genero, ingurumen eta garapen politikekiko.
- LANeri behatzaile estatusa ematea MMEren aurrean eta LANek globalizazioaren alderdi sozialari buruz antolatzen dituen eztabaidetan erakunde horren eta NMFren parte-hartzea bultzatzea.
- Erakundea demokratikoagoa eta gardenagoa egitea, lobbyen presiopean ate itxian hartutako erabakiak saihestuz.
- Zerbitzu publikoak eta sozialak lehia asketik kanpo uztea, gizartearen beharrezko zerbitzuak direlako eta pertsona guztiengana iritsi behar dutelako, merkatuaren gorabeherak alde batera utzita.

CSIren SORRERA BILTZARRA: MMEri BEGIRA EGINIKO PROGRAMA

Sortu zenetik, MMEk merkataritzaren liberalizazioaren eredu jasangaitza gidatu du, langileen esplotazioa areagotuz, garaparen desberdintasunak sortuz, ingurumena txikituz eta generoen arteko desberdintasuna bultzatuz. Biltzarrak onartu du nazioarteko merkataritza sistemak ez duela garapenerako laguntzen, eta horixe dela, hain zuzen, lortu beharrekoa, sistema multilateral osoak batera egingo duen ahaleginaren bidez. Garatze bidean diren herrialdeek beharrezkoa den gaitasuna eduki behar dute industria garapenari buruzko politika nazionalak ezartzeko. Politika horiek bat egingo dute lan duinaren programarekin. Era berean, herrialde horiek MMEren erabakitze prozesuetan parte hartzeko eskubide osoa izan beharko dute.

Biltzarrak azpimarratu duenez, MMEk lehenbailehen landu beharko ditu alderdi sozialak eta laboralak. Halaber, merkataritza, gizarte garapenaz eta laneko arauz arduratuko den lan talde iraunkorra eratzea proposatu du biltzarrak, LANeri bertan parte hartzeko aukera emanaz. CSIk MMEren estatutuetan langileen eskubideei buruzko klausula bat sartzea defendatuko du. Horren arabera, herrialdeen arteko merkataritzan eskainitako zerbitzu eta produktu guztiak laneko oinarrizko arauak betez ekoiztu eta banatuko dira. Aipatutako klausula protekzionismoaren aurkakoa eta garapenaren aldekoa izango da. Horrez gain, ezinbesteko tresna izango da munduko merkataritza sistema irekian justizia soziala ezartzeko. Herrialde guztiei lankidetzat tekniko egokia eskainiko zaie, laneko arauak erabat errespeta daitezen.

PRIORIDAD DE ACCIÓN



KLAUSULA SOZIALA

Klausula sozialaren bidez, alde batetik, eskubide urratze etengabeak geldiarazi nahi dira, eta bestetik, Lanerako Oinarrizko Arautzat hartutako LANEren hitzarmenak errespetatzen ez dituzten produktuen merkataritza eragotzi nahi da (ikus 1.3. puntua).

CISen ustez, garbi dago merkataritza trukeen kateko lehenengo kate maila lan ordainsariduna dela. Beraz, laneko arauen eta merkataritzaren artean loturarik finkatzen ez bada, lan baldintzak apaltzeko arriskua dago, langileriaren lorpenak bertan behera utziz eta horiek zabaltzea ezinezkoa bihurtuz.

Klausula soziala protekzionistegia zela leporatu zitzaizen sindikatuei. Iparraldeko sindikatuek Hegoaldeko herrialdeetan eskulan merkea edukitzeak Iparraldeko sindikatuei zekarkien arriskutik babesteko saialdia zela ere salatu zen. Salaketa horri aurre egiteko, nazioarteko sindikalgintzak erantzun garbia eman du.

Klausula sozialak proposatzen dituen oinarrizko arauak langileen oinarrizko giza eskubideek osatuak dira. Ez du gutxieneko lan baldintza globalak ezartzearen alde egiten, gobernuek lehiakortasuna irabazteko langileen errepresioa, bazterkeria eta esplotazioa bertan behera uztearen alde baizik. Gutxieneko ordainsari unibertsala ezarri baino gehiago, Hegoaldeko herrialdeetako langileei beren laneko baldintzak, soldatak barne, negoziatzeko aukera eman nahi zaie.

CIOSL



Klausula Soziala

Merkataritza hitzarmenetan sartutako elementu baldintzatzaile horien helburua laneko oinarrizko eskubideak betetzearen alde egitea da.

Horretarako, herrialdeei eta enpresei zuzendutako onura eta zigor sistema batez baliatzen dira.

1998an, EBK

Lehentasunen Sistema Orokorra onartu zuen.

Sistema horretan jaso ziren LANEK sindikatuen eskubideei, haurren lanen debekuei eta bortxazko lanen debekuei buruz sinatutako oinarrizko hitzarmenak errespetatzen dituzten herrialdeei zuzendutako merkataritza pizgarriak.

Esan dugunez, mugimendu sindikalaren nazioarteko presio kanpainaren lorpenik handiena 1996koa izan zen, MMEk Singapurren eginiko bileran. Izan ere, estatuburuak merkataritzan lanerako oinarritzko arauak errespetatzeko konpromisoa beren gain hartu zuten bilera hartan. Ondoren, Costa Ricak lehendakaritza zuela, Costa Ricako dokumentua egin zen. Bertan, MMEren barruan eztabaida talde bat eratzea proposatu zen, globalizazioaz, lan munduaz eta garapenaz arduratzeko. Era berean, taldeak irekia izan behar zuen, LANE, MB eta UNCTAD erakundeek parte har zezaten. Horrekin batera, MMEren konpromisoa lortu nahi zen Kopenhageko Adierazpenean eta Rioko Goi-bileran hartutako erabakiak bete ditzan, hurrenez hurren, gizarte garapenari eta ingurumenari buruzkoak. Baina dokumentu hori ezin izan zen Seattleko Bileran onartu, bertan behera geratu baitzen bilera hura gizarteak emandako erantzunaren eraginez. Gaur egun arte, gaia eztabaidetatik kanpo geratu da.

Bestalde, kanpainaren eragina ebaluatu ondoren, nazioarteko sindikatuen mugimenduak argi ikusi du, laneko oinarritzko eskubideen defentsak bat egin behar duela, nahitaez, gizakiaren garapen iraunkorraren aldeko borrokarekin.



'luac

rgano de consulta

5.3. OCDE dela eta

OCDE dela eta, sindikatuen helburua erakunde horren planteamendu neoliberalak ordezkatzeko da, erabateko enpleguaren erronka, laneko eskubideak eta gizarte babesaren aldeko planteamenduekin.

Gaur egun sindikatuek eginiko lanari dagokionez, TUACK (OCDEren Sindikatuen Aholku batzordea) aholkulari gisa dihardu, eta bertatik eginiko lanak eragin nabarmena du ekonomia globalaren erakundeetan. Dena den, OCDE osatzen duten herrialdeetako gobernu alderdien ikuspegi ideologikoak baldintzatzen du TUACren lana.

Bestalde, Munduko Sindikatuen lana OCDEri begira TUACren jarduera babestean datza, Nazioarteko Sindikatuen Federazioen eta sindikatu nazionalen bidez; horrez gain, sindikatuen jarduera koordinatzeko ahalegina egiten da eta aliantza estrategikoak ezartzen dira, kideetasunak dituzten taldeen artean.

5.4. G8 dela eta

G8 dela eta, nazioarteko sindikatuen helburua ekonomiaren eta enpleguaren hazkundera sustatzea da, ekonomia makroekonomikoen esparruan. Horretarako, interes eta truke tasetan nahiz merkataritza politikan eragin nahi da, nagusiki. Era berean, gutxieneko soziala finkatu nahi da, globalizazioaren gehiegikeriak geldiarazteko eta herrialdeen barruko nahiz herrialdeen arteko desberdintasunak amaitzeko.

Sindikatuek, gaur egun, G8k eginiko Goi-bilerei begira adierazpenak egiten dituzte eta harremanetan jartzen dira gobernuarekin goi-bilerak egin aurretik, hartu beharreko erabakietan eragiteko xedearekin. Amaitzeko, TUAC eta CIS erakundeek topaketa horien ebaluazioa eta jarraipena egiten dute.



1964an sortutako **Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Batzarrak (UNCTAD)** garatze bidean diren herrialdeak munduko ekonomian integratzeko xedea du, garapenerako testuinguru egoki baten bidez. Nazio Batuetako organo nagusia da, merkataritzaren, garapenaren eta finantza, teknologia, inbertsio eta garapen iraunkorraren gaineko azterketa integratua egiteari dagokionez.



Europako Enpresa Batzordeak

Enpresetan eta nazioz gaindiko izaera duten taldeetan Informazioa eta Kontsulta eskubideei buruzko Europako 94/95 Zuzentarauan sortu ziren Batzorde hauek. Askotan, sindikatuen eta enpresen arteko elkarrizketa guneak dira.

Etorkizunari begira, nazioarteko sindikatuen jarduera G8ri aurre egiteko TUACri eta CISi babes ematea izango da, besteak beste, goi-bileren jarraipena egiteko, nazioarteko koordinazioa bideratzeko eta kidesunak dituzten taldeen arteko aliantzak egiteko (GKE). Hori guztia goi-bileretan eragin handiagoa izateko xedearekin egingo da.

5.5. ETNak direla eta

5.5.1 Laneko Nazioarteko Harremanak antolatzeko sindikatuek eman beharreko pausoak

MUNDUKO ENPRESA BATZORDEAK SORTZEA

Nazioz gaindiko enpresetan lan harremanak arautzeko gizarte elkarriketarako egitura eta arau egonkorrik ez dagoenez, sindikatuek enpresa horietan parte hartzeko zailtasunak dituzte Europatik kanpo (bertan araudia badago).


Hori dela eta, nazioarteko sindikatuen erronka Europako Enpresa Batzordeak eraldatzea eta sindikaltzea da, Munduko Batzordeak eratzeke xedearekin. Hartara, Nazioarteko Sindikatuen Federazioen (FSI) bidez, batzorde horietan sindikatuen parte-hartzea bermatuko da.

Dagoeneko munduko batzordeen hainbat adibide badira, eta horien bidez, mundu osorako baliaigarriak diren sindikatuen jardueraren oinarriak finkatzen dira. Volkswagen eta SKF²¹ enpresetan horrelako batzordeak daude. Bestalde, Eskualdeetako Batzordeak ere eraten ari dira, hala nola Telefonikako Grupo Intersindical Iberoamericano izenekoa; halaber, sindikatuen sare ofizialak eta ofiziosoak daude, enpresa berak munduko hainbat tokitan kontratatutako langileak ordezkatzeko.

²¹Serafin Aliaga Bakea eta Elkartasuna Fundazioa (2001), *Alternativas sindicales a la globalización*. Madril, Fundación Paz y Solidaridad Serafin Aliaga. In OTG www.observatoriodeltrabajo.org

Gehienetan, bilerak antolatzeaz arduratzen diren egiturak dira. Bileren horietan enplegatzaile berarentzako lanean ari diren herrialde askotako langileek parte hartzen dute, askotariko gaiei buruz hitz egiteko. Bileretako xedeak ere askotarikoak dira, hala nola tokian tokiko lan baldintzak hobetzea besteen esperientzietan oinarrituz edo munduko sindikatuen arteko benetako lankidetzak sustatzea.

Jarraitu beharreko bidea, berriz, Europako Batasunaren bilakaerak zehazten du, bertan enpresa sarea sortzen ari baita (siderurgiaren eta aeroespazioaren sektorean begi bistakoa da). Hori guztia Europako Batzordearen barruan hazten ari den joeraren testuinguruan kokatu behar da; horren harira, lan harremanak Europan ezartzeko hainbat proposamen egiten ari dira (era askotako proposamenak egiten dira: nola gaur egungo Europako Enpresa Batzordeek eta Europako Sozietate Anonimoek duten legediari buruzkoak, hala enpresetako gizarte erantzukizunari edo industria aldatetara aurreratzeari buruzkoak).





AKORDIO MARKOAK

Zer dira Akordio Markoak?

Enpresetako jokabide kodeak dira eta nazioarteko enpresaren edo patronalaren eta erakunde sindikal baten artean negoziatzen dira (Nazioarteko Sindikatuen Federazioak edo nazioarteko sindikatuen sareak, bai Munduko Batzordeak bai sare informalak). Nazioz gaindiko enpresa batekin sinatutako sindikatuen akordio markoen adibideak ditugu Telefonican edo Endesan. Bestalde, Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzaren Europako Federazioak (FSE-THC) sektorerako akordio marko bat sinatu zuten, ehungintzaren Europako patronalarekin.

Sinatu beharreko jokabide kodeek CSIren Jokabide Kodearen edo FSIk eginikoen eredia jarraitu behar dute, horietan jasotzen baitira lehen planteatutako Laneko Oinarrizko Arauak. Horien artean, nabarmendu beharrekoak dira sindikatuan parte hartzeko eta negoziazio kolektiboa egiteko eskubideak.

Era berean, kode horiek izaera loteslea dute eta horien barruan sartzen ahal dira jarraipen, berrikuste eta kontrol mekanismoak. Halaber, nazioz gaindiko enpresek nazioartean geroz eta zentralizatuago duten botereari aurre egiteko ezinbestekoa den sindikatuen elkarrizketaren beharrari erantzuten diote kode horiek.

Nork garatzen dituzte?

Nazioarteko sindikatuen mugimenduaren barruan Nazioarteko Sindikatuen Federazioak arduratzen dira akordio horiek sinatzeaz. Horiekin batera, enpresa matrizek egoitza nagusia duten herrialdeetako sindikatuek ere parte hartzen dute.

Akordio Markoak hedatu egin behar dira enpresa multinazionalaren enpresa subsidiarioetara edo azpikontratuetara, eta dagokion FSIk akordioak

egiazatu beharko ditu, hainbat printzipio aintzat hartuz. Negoziazio kolektiboaren hitzarmenak ez diren arren, eskubideen eredu gisa balio dute, maila horietan negoziazioa eta aitormena sustatzeko. Akordioak sendoak izan daitezten, enpresa matrizeetako langileen presioa eta konpromisoa ezinbestekoa da.

Dena den, jarrera protekzionista saihestu arren, enpresa nagusietako sindikatuen erakundeek adierazteko aukera eman behar diete eskumendekoak dauden herrialdeetako sindikatuen erakundeei. Horiek bat eginez, enpresa sare eraginkorra sortu behar da, Munduko Batzordea eratze bidean aurrera egin ahal izateko.

Zergatik sustatu?

Nazioarteko lan harremanak arautzeko esparrurik ez eduki arren, akordio markoak nazioz gaindiko negoziazio kolektiboaren hastapena izan daitezke. Ezin dugu ahaztu, LANERen hitzarmenak ere nazioartean eginak diren arren, herrialdeetako gobernuek aplikatu beharko dituztela.

Gaur egun, zenbat daude?

Nazioarteko Sindikatuen Federazioek 18 akordio egin dituzte nazioz gaindiko enprekin, horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: Endesa, Ikea, Danone, Carrefour, Telefonica eta Volkswagen. Horrez gain, nazioz gainkiko zenbait erakunde patronalekin akordioak ere sinatu dira, Europako hainbat Federaziorekin hain zuzen ere.

- ICEM, (Kimika, Energia, Meatzaritza eta oinarriko Industrietako Langileen Sindikatuen Nazioarteko Federazioa): Akordio Markoak daude 1995az geroztik (orduantxe sinatu zen lehena), honako enpresa hauekin: Statoil, Freudenberg, Endesa (2002ko urtarrila), Norske Skog, Anglo Gold, Eni Lukoil, SCA, EDF, Rhodia eta Lafarge.



- IFBWW (Eraikuntzaren eta Zuraren Langileen Nazioarteko Federazioa), Akordio Markoak honako hauekin sinatu dira: IKEA, Faber Castell, Hochtief, SkaCSla, Ballast, Nedam, Impregilo, Veidekke eta Schwuan-Stabilo.
- UITA (Elikadura sektorearen Langileen Nazioarteko Batasuna): Horrelako akordio bat sinatu zuen lehen Federazioa izan zen (1988), Danone frantziar enpresarekin. Gaur egun, honako Akordio hauek daude: Danone, Accor, Chiquita eta Fonterra.
- UNI (ahalmenen eta zerbitzuen nazioartekoa-Union Network International). Hainbat Akordio sinatu izan dira honako enpresa hauekin: Carrefour, OTE Telecom, Telefonica (2001), ISS eta H&M.
- FITIM (Industria Metalurgikoen Langileen Nazioarteko Federazioa). Akordio Markoak sinatu ditu honako enpresa hauekin: Merloni, Volkswagen, DaimlerChrysler, Leoni, GEA, SKF, Rheinmetall, Bosch, Prim, Renault, BMW, EADS, Gebr. Röchling eta Arcelor.
- FSE-THC (Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzaren Europako Federazioa). 2000ko uztailan Jokabide Kodea sinatu zen Europako Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzaren patronalekin.
- EMFren (Europako Metalurgiaren Federazioa) eta General Motors Europaren arteko akordioa: Akordio horrek General Motorsek (Opel) European dituen lantegietarako bakarrik balio du.



5.5.2 OCDEren eta LANeren nazioarteko araudien erabilgarritasuna

70eko hamarraldiaren amaieran, ETNek nazioartean zuten botereari erantzunez eta langileek eta enpresaburuak onetsitako gobernu arteko hitzarmenei esker, hainbat araudi sortu ziren. Zigorrik ez ezarri arren, gobernuak nazioz gairik ez zuten enpresei araudia betearazteko konpromisoa hartu zuten.

Bai LANek bai OCDEk urratzeak salatzen bideak zabaldu zituzten, eta horrek emaitzak publikoki zabaldu zituzten aukera eman zuen. LANeren eta OCDEren nazioarteko araudi horiek erabiltzen ahal dira, ETNen Laneko Oinarriko Arauak betetzen direla zaintzeko eta laneko eskubideak defendatzeko.

LANeren HIRUKO ADIERAZPENA

Adierazpenaren jatorria

Nazioz gairik ez zuten enpresei eta gizarte politikari buruzko printzipioen hiruko Adierazpena Laneko Nazioarteko Bulegoaren Administrazio Kontseiluak egin zuen 1977an, eta 2000n berretsia izan zen.

Lehen aipatu dugun moduan, Lanaren nazioarteko zuzenbidea Lanaren Nazioarteko Erakundeko kideen ordezkariak onartutako arauak osatua da: gobernuak, enplegatzaileak eta langileak. Langileen erakundeek Adierazpen osoa tresna loteslea izatea eskatu zuten. Dena den, azkenean, borondatezko izaerari eutsi zizkion. Izan ere, enplegatzaileak eta gobernuak ez zeuden ados. Beren jarrera defendatzeko emandako argudioen artean, enpresa multinazionalak definitzearen zailtasunak eta beste arrazoi juridiko batzuk ere aipatu zituzten: adibidez, berretsitako tresna izan behar zuela Estatuentzat loteslea izan zedin.

Adierazpenaren irismena

Beraz, adierazpenak borondatezko izaera du. Dena den, LANeko kide diren herrialdeek berretsitako hitzarmenei dagokienez, gogoan izan behar dugu Estatuek beren eskumeneko espresa guztiek hitzarmen horiek betetzen dituztela zaintzeko konpromisoa dutela, enpresa nazionalak diren edo talde multinazional bateko kide diren bereizi gabe. Ez da hala gertatzen Estatuon gizarte politika gidatzeko asmoz eginiko Gomendioekin.

Adierazpenaren jarraipena

LANEren Adierazpenari jarraipenerako mekanismoa bat atxiki zioten; mekanismo horren bidez, Estatu kideei eskatzen zaie aldian behin Adierazpenari buruz egindako urratsen berri emateko, enplegatzaile erakundeei eta langile erakundeei galdetuta. Horrela osatutako txostenak Batzorde Iraunkorrari helarazten zaizkio; batzorde hori da Adierazpenaren jarraipena egiteko ardura duena, eta urtean behin elkartzten da, gutxienez.

Jarraipena egiteko, galdetegi bat igortzen zaie gobernuari eta langile eta enplegatzaile elkartei (ez nazioz gaindiko enpresei); erantzunak aztertzen dira eta oinarri gisa erabiltzen dira hiruko talde batek eratzten duen txosten analitiko bat egiteko. Txostenari buruzko irizpena egiten du enpresa multinazionalen azpibatzorde batek, eta LANEren Administrazio Kontseiluak oniritzia ematen dio. 2001eko martxoko saioan, ehun estatuk galdetegiari emandako erantzunak jaso ziren (LANEk 175 estatu biltzen ditu).

OCDEren IRIZPIDEAK

Irismena

Enpresa multinazionalei zuzendutako OCDEren Irizpideak enpresaren jardunbide egokirako gomen-dioak dira; OCDEko 30 herrialdeetako enpresentzat prestatuak dira nagusiki -gehi Argentina, Brasil eta Txile-, baina herrialde horietako multinazional oro dauden munduko herrialde guztiak hartzen dira kontuan. Ez dira nahitaez bete beharrekoak, baina ezta borondatezkoak ere; izan ere, gobernuek sustatu egin behar dituzte irizpide horiek, garatu egin behar dituzte, eta horien aplikazioa kontrolatu behar dute, Elkargune Nazionalen (EN) bidez.

Elkargune Nazionalak

Elkargune Nazionala Herrialde bakoitzak nahitaez sortu behar duen ETNen kontrol, zaintza eta jarraipenerako esparrua da; esparru horrek gobernuarekin lotura estuagoa izaten du batzuetan, adibidez Espainian, edo hiruko izaera izaten du. Elkargune Nazionala irizpide horiek sustatzeko eta zabaltzeko zentro nazional moduko bat da; hau da, beste herrialde batzuetan inbertitzen duten enpresa nazionalen eta beren herrialdeetan finkatuta dauden atzerriko enpresetan irizpide horiek sustatzeko eta zabaltzeko zentro nazionala.

Izan ere, elkargune horiek operatiboak diren herrialdeetan, mintegiak edo bilerak antolatu dituzte, irizpideak zabaltzeko, eta Mark Spencerrren kasuak (Birmania) eztabaidatu dituzte. Txekiako Siemensen kasuan ere, txekiar sindikatuek Elkargune Nazionalari egindako eskariari esker, konpainiak gizarte eztabaidan parte hartzera eta sindikatuetan elkartzeko askatasuna onartzera behartuta ikusi zuen bere burua.



Sindikatuaren mugimenduaren uztez, Espainiako Elkargune Nazionala ez da batere garatu eta honako alderdi hauek landu beharko lituzke:

- Ez betetzearen kasuak salatzea, eta urratze horiek elkarriketa eremu bihurtzea ETNen aurrean, jarritako salaketetan.
- Irizpideak sustatzea eta hedatzea.
- Irizpideak betetzea esportazioari emaniko laguntzak edo kredituak jasotzeko baldintza izatea.

OCDEren Nazioarteko Inbertsioen eta Nazioz gaindiko Enpresen Batzordeak Elkargune Nazionalen jarduerari buruzko txostenak eskatzen dizkie gobernuari, urtero, Elkarguneek beren erantzukizunak beren gain hartzen dituztela egiaztatzeko.

FITIVCK Koreako Elkargune Nazionala erabili du OCDEren aurrean, FESTRAS sindikatuak jasandako errepresioa salatzeneko Koreako kapitalarekin Guatemalan jarritako maquila izeneko enpresetan.

5.5.3. ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA ZAINTEZA

Enpresa eta Gizartea Fundazioak dioen moduan, 90eko hamarraldiaz gero nazioz gairikoen enpresek ekonomia jardura tradizioaletik harago jo behar izan dute, eta, beren protagonismoaz, ospeaz eta lider izateko duten gaitasunaz baliatuta, ongizatea sustatu, araua bete, konpromiso etikoak hartu, inguru-mentea errespetatu eta proiektu sozialak babestu dituzte.

Horrela, enpresak gizartearen ongile modura agertu zaizkigu Estatuaren eskumeneko eginkizunak berenganatzeko taktika bati jarraituz, estatuarena baita herrialdeko eta nazioarteko araudiak betearztearen ardura. Halaber, saihestu egin dituzte Laneko Oinarrizko Arauen arabera langileek sindikatuak eratzeko eta laneko baldintzak negoziazio kolektiboaren bidez zehazteko dituzten eskubideak.

EGEa osatutako araudi eta arau pribatuek eta borondatezkoek ez dituzte betetzen arau juridikoetan funtsezkoak diren honako hiru ezaugarri hauek:

- Hiritarren borondatea adieraztea, haiek ordezkatzan dituzten erakundeek eginak baitira.
- Guztientzako derrigorrezkoak izatea.
- Urratze edo ez betetzearen ondorioz jurisdikzio administratiboak eta judizialak jarritako zigorra jasotzea.



Iritzi publikoan laneko eskubideen urratzeek edo ingurumenaren hondamenak eragiten duten haserrea dela eta, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren egitekoa harreman publiko hutsa izan daiteke; eta paradoxa bada ere, horrelakoetan enpresek borondatezkoztaz hartzen dituzte nazioartean aitortutako betebeharrak. Alegia, enpresek, beren kabuz, estatuek betearazi beharko lituzketen araudiak borondatez betetzen dituztela diote. Zenbaitetan ere eta CETIM²² esandakoa gogoraraziz: "urratzeak egiten dituzten beste enpresak auzipetu egiten dituzte"

Horrez gain, enpresetako adierazpen horiek ez dira beti kontrol edo zaintzarako mekanismo fidagarriei lotuak izaten -ez dago garbi nork izan behar duen ikuskari, ezta barne edo kanpo ikuskaritarik egingo den ere-. Gainera, kasu guztietan ez da eginkizunik aurreikusten gizarte solaskideentzat, eta are gutxiago sindikatuentzat.

Negoiazioa eta legedia dira langileen eta herritarren eskubideak modu iraunkorren bermatzeko gaitasuna duten bakarrak. (...) Joeran antzeman daitekeenez aginte publikoen eginkizuna murrizten ari da, koordinazio irekiaren sustapenaren bidez, legedi malgu eta bigunaren bidez eta arautzearen kalterako eginiko ebaluazioen bidez. (...) enpresetako gizarte eta ingurumen erantzukizunak aurrera egin dezan, hainbat enpresetako "borondatezko" metodo "eredugarria" nahikoa izatearen ilusioa ahaztu egin behar da, baita garatze bidean diren herrialdeetan kokatutako enpresatan ere.

Europako Sindikatuen Konfederazioa.

²²CETIM (2002), "¿Las Naciones Unidas harán respetar a las sociedades transnacionales las normas internacionales en materia de derechos humanos?" Geneva, CETIM.

ENPRESEN JOKABIDE KODEAK

Zer dira?

Enpresaren jokabide kodea enpresa baten konpromisoak deskribatzen dituen dokumentua da; hain zuzen ere, langileei, komunitateari eta ingurumenari buruzko oinarritzko estandarrei eta eskubideei buruz hartutako konpromisoak deskribatzen dituena.

Aurrekariak

90eko hamarraldiaren hasieran, nazioartean azpikontratuen bidez fabrikatutako artikulua merkaturatzen edo lantzen ziharduten enpresak lan jarduerai buruzko jokabide kodeak lantzen eta bere egiten hasi ziren, beren azpikontratatuzaileei eta hornitzaileei ezartzeko.

Enpresek beren kabuz hartutako nazioarteko laneko kode hauek enpresa bakoitzak egin eta onartu zituen, eskumendekoak edo azpikontratatuak zituzten herrialdeetan ezarritako araudiak aintzat hartu gabe, eta zenbaitetan, lehen aipatutako nazioarteko ereduak ere saihestuz.

Jokabide kodeak

1. Jarduerazkoak eta ereduzkoak

Jarduera kodeak enpresetan edo beren bazkideetan zuzenean aplikatzen dira, jokabide espezifiko konpromiso gisa.

Kode ereduak argitaratu egiten dira beste jokabide kodeen oinarri gisa erabil daitezela. Kode eredu horiek enpresa elkarrekin, sindikatuekin, gobernuz kanpoko erakundeekin edo gobernuak ezartzen dituzte.



Enpresen jokabide kodeak

Dokumentu horrek enpresak bete beharreko ingurumenari eta lanari buruzko oinarritzko eskubideak eta estandarrak deskribatzen ditu. Langileei, komunitateari eta ingurumenari begira enpresak hartutako konpromisoak dira.



Egiaptapena. Jokabide kode bat egiaztatzea horren betetze mailaren konstatazioa egitea da. Horretarako, hirugarren batek eginiko "ikuskaritza beregaina" bilatzeko joera nagusitu da (GGKE, kudeaketa enpresa bat, aholkularitza bat edo fundazio pribatu bat). Horrek enpresak sinatutako kodea enpresan bertan eta azpikontratatueta betetzen ote den egiaztatu beharko luke.

Egiaptapenaren ondorioz, "prozesu zabalago bat hasten da, kodearen onartze mailaren eta horren aplikazio sistemen gaineko kontrola eta etengabeko ikuskaritza inplikatzeko duena".

2. Enpresaren eta gizarte eragileen arteko negoziatuak

-Erakunde sindikalekin

Langile erakundeak enpresekin eta enpresa elkarrekin elkartzen ari dira, jokabide kode batzuk negoziatzeko eta elkarrekin ezartzeko; kode horien barruan lanaren ikuspegitik interesekoak diren xedapen batzuk sartzen dira, Akordio Markoak deritzenak.

Era honetako kodeetan langileek parte hartzen dutenez, aurrez aztertutako beste kode mota batzuetan baino era koherenteagoan txertatzen dira lanerako nazioarteko arauak. Negoziazioak Nazioarteko Sindikatu Federazioen (seguru asko, aurrez tokiko sindikatuak kontsulta eginda) eta multinazionalen egoitza nagusietako zuzendaritzaren artean egiten dituzte.

Jokabide kodea seriotasunez hartzen duen enpresa batek ez du kodea harreman publikoen atalean ezartzera mugatuko; aitzitik, Kodearen zuzendaritza orokorraren ardurua maila gorenetan banatuko du, eta kudeaketa sistema pertinente orotan betearaziko du.

Neil Kerney²³

Egiaptapena eta ziurtapena

Egiaptapena, kontrola eta ziurtapena negozio berri bihurtu dira, enpresa arloko formazioarekin gertatu den bezala. Aholkularitza bulegoek eta fundazio pribatuek dihardute esparru berri horretan, baina European, sindikatuetatik eratorritako ekimen aipagarriak ere lantzen hasi dira.

²³CIO SL (2001), Una guía sindical sobre la mundialización. Brusela, CIO SL. In OTG www.observatoriodeltrabajo.org

CIOSLk aipatzen duenez, sindikatuek egiaztatze sistema beregainen ezarpenenean eta egiaztatpenean parte hartu behar dute, funtsezko eginkizuna baitute arauak, prozedurak, formazioa eta kalifikazioak zehazteko unean.

Sindikatuek honako hiru ekimen hauetan parte hartzen dute:

ETI (Merkataritza Etikoaren Aldeko Ekimena)

Merkataritza Etikoaren Aldeko Ekimena britainiar enpresak, gobernuz kanpoko erakundeak eta sindikatuak elkartzean sortu zen. Guztiak elkarrekin lan egiteko prest agertu ziren, laneko jokatutako kodeen ezarpen prozesuetan jardunbide egokiak identifikatzeko eta sustatzeko. Horien barruan kontrol eta egiaztatze sistema beregaina ere txertatu zuten.

ETI konpainia mugatu pribatua da, irabazi asmorik gabea. Ekimenaren zuzendaritza batzordea honako hauek osatua da: enpresak, sindikatuak eta GGKEak; lehendakaritza independentea, eta zuzendaria, Erresuma Batuko Gobernuko Nazioarteko Garapenerako Sailaren ordezkari dena.

SAI (Nazioarteko Gizarte Erantzukizuna)

Nazioarteko Gizarte Erantzukizuna (SAI) giza eskubideen aldeko erakunde humanitario bat da, lantokian gizarte erantzukizuneko estandarrak garatzen eta inplementatzen dihardu eta Ekonomia Lehenetasunen Kontseiluko (ELK) kide da. SAIk giza eta lan eskubideei buruzko araudia egin du, SA 8000 izenarekin ezagutzen dena.

Esan behar da Ehungintzaren Nazioarteko Federazioak (FIITVC), UNIk eta Amnesty International GKEak babestu egiten dutela Laneko Oinarrizko Arauak jasotzen dituen ekimen hau.



Global Reporting Initiative

Gizarte Erantzukizun Korporatibo gisa onartutako estandarra da eta Global Reporting Initiative erakundeak egin zuen. 1997an sortutako erakunde hori Coalition for Environmentally Responsible Economies eta Nazio Batuen Ingurumenari buruzko Programaren artean sortu zen, honako xede honekin: enpresa arloko informazioa ekonomian, gizartean eta ingurumenean txertatzeko aukera emango duen marko bat diseinatzea, era globalean aplikatu ahal izango dena.

Global Reporting Initiative erakundeak Global Reporting Initiative Iraunkortasun Memoriak Egiteko Gida prestatu du; tresna homogeneous, sinesgarria, konparagarria eta era globalean onartua da.

Gida abian jarri zuten geroztik, hainbat konpainiak erabili dute formatu hori beren memoriak egiteko, besteak beste: AT&T, BASF, British Telecom, Ford, Electrolux, ING Group eta Volkswagen.

Spainian, oraindik indar handirik ez badu ere, gero eta enpresa gehiago aztertzen ari dira ekimen horrekin bat egiteko aukera. 2003ko lehen seihilekoan honako hauek parte hartzen zuten: RENFE, DKV aseguruak eta Tetra Pack

Gizarte Etiketa

LANEren arabera, "gizarte etiketa" da etiketa fisiko baten bidez produktu baten ekoizpenari edo zerbitzu prestazio bati buruzko lan baldintzen informazioa emateko erabilitako edozein bitarteko.

Gizarte etiketak produktuei nahiz bilgarriei ezar dakizkieke, eta xehekako saltokietako erakusleihoetan ere jar daitezke.



Gizarte Etiketa

Etiketa fisiko baten bidez produktu baten ekoizpenari edo zerbitzu prestazio bati buruzko lan baldintzen gainera informazioa emateko erabilitako edozein bitarteko da.

Badira beste etiketa batzuk enpresei ezartzen zaizkienak, ekoizleei edo fabrikatzaileei batez ere. Horrelakoak kontsumitzaileentzat eta balizko merkataritza bazkideentzat baliagarriak dira.

Oro har, errezelo handia dago sindikatuen mugimenduan jarduera horrekiko, eta horrela izango da egiaztatze sistema beregainak, eraginkorrak eta fida-garriak ezartzen ez diren bitartean.

Lan jardueraren berri ematen duen etiketa bat fidagarria izango da lanpostuan bertan etengabeko arreta jartzen bada, baldintza hori, ordea, bakarrik betetzen da sindikatu seguruei eta beregainei lana egiten uzten zaienean.

Neil Kearney²⁴

Nazio Batuen ekimen bat: Hitzarmen Globala

Hitzarmen Globala (Global Compact) Nazio Batuek enpresei eginiko deialdia da, giza eskubideei, laneko araei eta ingurumenari buruzko bederlatzi printzipio unibertsalak bete ditzaten.

Nazio Batuek bere emandako definizioaren arabera, Global Compact hitzarmena ez da tresna arautzaile bat, derrigortasunezko indar juridikoa duen jokabide kode bat, ezta kudeaketa arauak eta jarduerak formulatzeko foro bat ere. Era berean, ez da enpresentzako babesleku bat, interes eta emaitza errealik eduki gabe lasai asko sina dezaketen hitzarmen bat. Borondatezko izaera duen ekimen bat da, hazkunde iraunkorra eta gizarte erantzukizuna enpresen lidergo konprometituaren eta sortzailearen bidez sustatzeko esparru orokorra izateko helburuarekin sortua.

²⁴CIOSL (2001). Una guía sindical sobre la mundialización. Brusela, CIOSL.



Nazio Batuak

Nazioarteko lankidetzaren eta segurtasun kolektiboaren bidez bakea mantentzeko prest zeuden 51 herrialdek Nazio Batuak eratu zituzten 1945eko urriaren 24an. Gaur egun, munduko nazio ia guztiak Nazio Batuetako Kide dira: 191 herrialde, guztira.

Nazio Batuetako kide egitean, Estatuak Nazio Batuen Kartan jasotako betebeharrak onartzen dituzte. Nazioarteko tratatu horrek nazioarteko harremanetarako oinarritzko printzipioak zehazten ditu. Kartarekin bat etorritik, Nazio Batuek lau helburu dituzte: nazioarteko segurtasuna eta bakea mantentzea, nazioen arteko adiskidetasun harremanak sustatzea, nazioarteko arazo konponketan eta giza eskubideen errespetuaren sustapenean nazioarteko lankidetzaren bideratzea eta nazioen ahaleginak bateratuko dituen gunea izatea.

Zer ondorio dakartzkio Global Compact ekimenak enpresari?

Hitzarmena sinatzen duten enpresek, Munduko Hitzarmenari sostengua ematen diotela esateko adierazpen bat egiteaz gainera, enplegatu, akziodun, bezero eta hornitzaileei jakinarazi behar diete ekimen horrekin bat egin dutela. Halaber, enpresaren garapen eta formazioko programan txertatu behar dute; jendaurrean atxikimendu horren berri eman behar dute eta urtean behin egindako aurrerapenen adibide xehea erakutsi edo printzipioak gauzatu izandako esperientzia zabaldu behar dute.

Zer iritzi du sindikatu mugimenduak?

CIOStk -eta aurrerago CCOOK eta UGTk- hitzarmen hori sinatu du, publizitate soila helburu duten ekintzak alde batera uzteari eta ETNekin alde biko elkarriketa egiteko eremu bat finkatzeari begira. Espainiari dagokionez, Espainiako matrizea duten eta hitzarmena sinatzen duten enpresetara zabalduko dugu elkarriketa; ikaskuntza eta trukerako foro bat eratuko da horiekin, baita babesleztako enpresa jardueren negoziazioa ere, eta, azkenik, bederatziko printzipioak ezartzeko konpromiso zehatz eta egiaztagarriak izango dituzten jarduera planak abian jartzea eskatuko diegu.





6. ELKARTASUNEZ JOKATU

Gaur egun lehiakortasunaren globalizazioaren eredia da nagusi; eta horren arabera, batek irabazi eta besteak galdu egiten du... -inork ez du galdu nahi, irabazteko ahalegina egiten dute guztiek, baina azkenean, irabazleak eta galtzailak egongo dira beti-. Ez da langileek edo sindikatuek proposatutako eredia eta egoismoa nahiz indibidualismoa bultzatzen du langileen artean; hain zuzen ere, langile klasearen ezaugarri izan beharko lukeen elkartasunaren kontrako muturra, (...) langile guztien arteko elkar mendekotasuna ezarri ezean, kaosa izango da, gatazka, alegia.

Luis Anderson, ORITeko idazkari nagusia



Garapen Iraunkorra

Gaurko belaunaldien beharrak aseko dituen eta datozen belaunaldienak asetzeko gaitasuna ziurtatuko duen garapenari deritzo. 1987an CNMADen definitutako kontzeptu horrek funtsezko bi adiera jasotzen ditu; bata, baliabideak erabiltzean nor bere muga jartzea, Iparraldean batez ere; eta bestea, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren bultzatzea.



Giza Garapena

Giza garapena pertsonen aukerak zabaltzeko xedea duen prozesua da.

Hasiera batean, aukera horiek mugagabeak eta denborarekin aldakorrak izan daitezke. Nolanahi ere, garapenaren edozein mailatan egonda ere, honako hauek funtsezkoak dira: bizitza duinaz eta osasungarriaz gozatzea, jakintzak eskuratzea eta duintasunez bizitzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratu ahal izatea.

Hori neurtzeko PNUDK

Giza Garapenaren

Adierazlea (GGA) sortu du. Adierazle horrek herrialde baten lorpen orokorrak neurtzen ditu, giza garapenaren oinarrizko hiru dimentsioak aintzat hartuz, hau da: bizitza luzera, jakintzak eta bizitza maila duina. Neurketa, bizitza itxaropenaren, hezkuntza lorpenen (helduen alfa-betatzea eta lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako matrikulazioa konbinatua) eta diru sarreren (ekonomia terminoetan neurtuta) arabera egiten da.

6.1. Giza Garapen iraunkorraren aldeko borroka

Munduko sindikatuek jakin badakite nekez lortuko dela lan duinik, garatze bidean diren herrialdeen egoera nabarmen hobetzen ez bada. Horren harira, lan esku-bideen aldeko borrokek duen garrantzia ukatu gabe, hegoaldeko sindikalgintzak argi planteatu du giza garapen iraunkorraren aldeko borroka horren maila berean jarri behar dela.

Hegoaldeko herrialdeetako sindikalista gehienek eskubide sindikalak defendatzeko kanpainak garapenari loturiko gai jakinekin (zorra arintzea, nekazaritza produktuak merkatuan era bidezkoan jartzea, farmakoen prezio eskuragarriak, GIB/IHESari aurre egiteko farmakoak, etab) bat egitearen beharra azpimarratu dute. Gai horiek guztiek eragin zuzena baitute langileen eguneroko bizitzan. Halaber, sindikatuek aliantza sendoak egiten ahal dituzte gizarteko sektoreekin gai horien inguruan. Amaitzeko, gai horiek bultzatuz Hegoaldeko herrialdeetako gobernuek jarrera irekiago izan dezakete laneko oinarrizko arauei dagokienez. (...) Brasilgo CUTaren Kjeld Jakobsenek dioenez "zer abantaila du taldeka negoziatzeko eskubidea izateak lanik gabe banago?"

Mark Anner, MMEn laneko oinarrizko arauen alde CIOslk eginiko kanpainari buruzko ebaluazio txostena.

Ezin dugu ahaztu, mundu globalaren testuinguruan merkatu ekonomia finkatzeko prozesuak desberdintasuna areagotzen lagundu duela XX. mendean. Beraz, munduko langile gehienak erabateko pobrezia egoeran murgilduta daude.


Globalizazio honek barneratu baino gehiago kanporatu egiten du; horregatik, nazioarteko sindikalgintzak eta gizartearen edo herritarren mugimenduek bat egin dute, giza garapen iraunkorraren, pobrezia-aren amaieraren eta giza eskubideak munduan hedatzearen alde borrokatzeko.

Langileak garen neurrian, dagokigun eskumenaren erantzukizuna geureganatu behar dugu, laneko eskubideen alde egineko. Dena den, giza eskubideak osoki bultzatu behar ditugu, eta horrek esan nahi du eskubide guztiek -zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta garapenari buruzkoak- zilegitasun bera dutela eta modu berean eskatu behar direla.

Vienan (1993) eta Kopenhagen (1995) eginiko biltzarren ondoren, gobernuek nahitaez jarri behar dituzte baliabideak giza garapen iraunkorra sustatzeko eta pobreziarekin amaitzeko. Halaber, Milurtekoaren goi-bileran zehazteko asmoz, Nazio Batuen erakundeak helburu jakinak finkatu ditu eta horien barruan NDF eta MME erakundeak inplikatu ditu.

Nazio Batuen erakundeak Milurtekoari begira finkatutako helburuen artean, honako hauek nabarmentzen dira: erabateko pobreziarekin eta gosearekin amaitzea, lehen hezkuntza unibertsala lortzea, generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakumearen papera bultzatzea, haur hilkortasuna murriztea, amaren osasuna hobetzea, GIB/IHESA, paludismoa eta beste gaixotasun batzuen aurka borrokatzea eta ingurumen iraunkorra lortzea. Horretarako, gehien jota 2015ean lortu beharreko helmuga kuantifikagarriak ezarri ziren.

Helmuga horien artean honako hauek aipatu behar dira: eguneko dolar 1 baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten pertsonen kopurua erdira murriztea, lehen hezkuntza unibertsala lortzea, hezkuntza maila guztietan generoen arteko desberdintasunarekin amaitzea, haur hilkortasuna erabat murriztea, eta horrekin batera, amaren osasuna hobetzea.



2015 eta gehiago Plataforma

Bakea eta Elkartasuna fundazioak eta Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan urtetako esperientzia duten 12 GIGKE aurrerakoik 2015 eta gehiago Plataforma sortu zuten, besteak beste, Nazio Batuetako Milurtekoaren Goi Bileran finkatutako helburuak betetzeari begira jarduerak bateratzeko xedearekin.

Era berean, garapenerako munduko erakundea sustatzeko helburua finkatu zen, honako lehentasun hauekin:

- Garatze bidean diren herrialdeekin lankidetzan estrategiak sortzea eta aplikatzea, gazteentzako lan duina eta produktiboa eskaintzeko helburuarekin.
- Merkataritza eta finantza sistema bat garatzea, irekia, arauetan oinarritua, aurreikusteko modukoa eta ez-baztertzaila.
- Gutxien aurreratutako herrialdeek dituzten behar bereziei erantzutea. Horren barruan sartzen dira, besteak beste: gutxi aurreratutako herrialdeen esportazioak sarrerako muga zergarik eta kuporik gabekoa izatea; zor handia duten herrialde pobreen zorra arintzeko programa ondua martxan jartzea eta alde biko zor ofiziala bertan behera uztea; eta amaitzeko, pobreziaarekin amaitzeko erabakia hartu duten herrialdeei garapenerako laguntza ofizial eskuzabalagoa ematea.
- Garatze bidean diren herrialdeek zorrarekin duten arazoa modu orokorrean bideratzea, neurriak hartuz bai nazioartean bai herrialdeetan. Horren bidez, epe luzeko zorra iraunkorra izatea lortu nahi da.



Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi Bilera

Johannesburgon (Hegoafrika) egin zen 2002ko abuztuaren 26tik irailaren 4ra. Gobernuak, Nazio Batuetako erakundeak eta gizarte erakundeak bat egin zuten, Rion 1992an eginiko Garapenari eta Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra egin zenetik lortutako aurrerapena ebaluatzeko.

Sindikatuak mugimendua Gizarte Zibilaren Foroan inplikatu da. Nazio Batuen babesarekin, Garapen Iraunkorraren Batzordearen (CDS) testuinguruan honako hauek biltzen dira: sindikatuak, ingurumen eta garapen GKEak, gazteak, emakumeak, nekazariak, zientzialariak eta indigenen komunitateak.

Munduko Sindikatuak aipatutako Foroaren zuzendaritzan parte hartu zuten. Johannesburgon munduko 20.000 delegatu elkartu zituen Foroak, azpimarratzekoa izan zen Afrikako eta Asiako erakundeen parte-hartzea, haien presentzia oso eskasa izan baita orain arteko bileretan.

6.2. Munduko ekonomia aldatzearen aldeko borroka

Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko harremanak aldatzea ezinbestekoa da. Erakundeen demokratizazio prozesutik hasita, ekonomia beraren demokratizazioa abian jartzea lortu behar dugu; hartara, munduko gobernuek berme handiagoa izango dute gizarte berdintasunaren alde borrokatzeko, bai herrialdeen barruan bai herrialdeen arteko harremanetan.

Beraz, ezinbestekoa da munduko ekonomia aldatzea. Horretarako, ordea, aurre egin behar zaie pobrezia-aren eragile nagusiei:

Kanpo zorrari dagokionez, gehiegizko kanpo zorraren arazoari irtenbidea eman behar zaio. Agerian geratu denez, Hegoaldeak Iparraldea finantzatzen baitu egoera horretan. RCADE eta Jubileo 2000 nazioarteko sareek eskatzen duten moduan, zorra barkatzeari eta berregituratzeari buruzko negoziazio mekanismoak demokratizatu behar dira.

Munduko Sindikatuek beste behin eskatu diete herrialde garatuei Gutxien Garatutako Herrialdeen kanpoko zorrarekin amaitzeko; izan ere, horren zama gehiegizkoa da. Era berean, oinarrizko giza eskubideak errespetatzen eta hezkuntza edo osasuna bezalako gizarte zerbitzuak lehenesten dituzten herrialdeei zorra barkatzeko baldintzak hobetzeko eskaera egin dute. CIOStik kanpaina bat martxan jarri du, Munduko Bankuak eta NDFk zorra handiko herrialdeei zuzendutako (PPME) programetan gizarteak parte hartzeko aukera izan dezan, bai galdeketeetan bai pobrezia-aren aurkako ekimenetan.



RCADE (Kanpo Zorra Abolitzearen aldeko Herritarren Sarea)

RCADE sareak demokrazia parte-hartzailea eta planetako bidegabekeri handiei aurre egiteko herrien mobilizazioa bultzatzen du. Herri galdeketa da sareak erabili ohi duen bitartekoa, eta aldi berean, helburua ere. Horren harira, Espainiako Estatuaren ia 500 herritan herri Kanpo Zorraren abolizioari buruzko galdeketak egin ziren. Galdeketak Espainian 2000. urteko martxoaren 12an eginiko hauteskunde orokorrekin batera egin ziren. Estatuko Bakea eta Elkartasuna Sareko hainbat erakundek parte hartu dute RCADEn. Bestalde, ekimen horrek Zorraren Behatokia Globalizazioan izeneko web orria sortu du (www.debtwatch.org/cast)



Jubileo 2000

Jubileo 2000 G7 presionatzeko eginiko kanpaina baten ondotik sortu zen. Kanpaina hartan herrialde pobreenen zor ordainezina ezeztatu nahi zen 2000. urterako, prozesu garbi eta zuzen baten bidez. Kanpainaren amaieran 24 milioi sinadura bildu ziren munduko 60 herrialde baino gehiagotik. Bakea eta Elkartasunak babes eman zion Manos Unidas, Caritas, Justicia y Paz eta CONFER erakundeek Espainian egin zuten ekimenari. Dagoeneko 250 erakunde baino gehiagok egin dute bat ekimen horrekin (Nazioarteko lankidetzan ari diren GKEak, sindikatuak, gizarteak baztertutakoen eskubideen alde lan egiten duten elkarteak, talde bakezaleak, komunikabideak, etab).

PPME ekimenaren amaierara iritsitako PMA herrialdeen zorra lehenbailehen izoztea lortu behar da. Era berean, PPMEn artean ez dauden PMA herrialdeen zorra 2005 urtea baino lehenago arintzeak erabateko garrantzia du. Gizarte programen berrikuspenari begira, komenigarria izango litza-teke PMA herrialdeetan, besteak beste, gobernu egokia ezartzea, giza eskubideen errespetua ziurtatzea, gizarte sektoreentzako baliabideak bideratzea (pobreziaren amaiera, hezkuntza eta osasuna) eta gizarte erakundeen parte-hartzea bermatzea -sindikatuak barne-.

CIOSL

Finantza krisiak aurreikusteari dagokionez, munduko sindikatuen mugimenduak kapitalaren mugimenduak kontrolatzeko mekanismoak sortzearen beharra azpimarratu du, nazioz gaindiko enpresei zergak jarrita. Neurri horren helburua munduko herrialde guztietan ekonomia egonkorra bermatzea da, arreta berezia jarriz herrialde ahulenetan.

Tobin Tasaren bidez finantza transakzioen gaineko zergak jarri nahi dira, kapitalaren espekulazio fluxuak moteltzeko. Horrela, herrialde bakoitzak bere moneta politika zehazteko gaitasun handiagoa izango du. Bestalde, Tasarekin bildutako funtsak garapena finantzatzeko erabili daitezke, eta, horrek, inondik ere, tasaren balioa areagotzen du. Tasa %0,001 izango balitz, aplikatzean 24 milioi dolar bilduko lirateke.

Truke desberdintasunari dagokionez, nazioarteko merkataritzaren testuinguruan garatze bidean diren herrialdeen mesederako izango diren nazioarteko merkataritza arauak onartzearen alde egiten dugu.

Alternatiben artean, GGKEek proposaturiko Bidezko Merkataritza dugu. Hegoaldeko gizartearen ekoizpena eta ekologia babesteaz gain, proposamen horrekin munduko merkataritzaren bidegabekeriaren gaineko

sentsibilizazioa lortzen da eta gure kontsumo mailari kritika egiten zaio.²⁵

Nazioarteko Finantza Erakundeen demokratizazioari dagokionez, nazioarteko sindikalgintzaren erronka nagusienetakoen artean NDF eta MB erakundeak daude. Demokratizazioa bi norakotan egin behar da; alde batetik, Hegoaldeko herrialdeek Nazioarteko Diru Funtsean eta Munduko Bankuan berdintasun egoeran parte hartu behar dute; eta bestetik, garapen planak egitean gizarteren parte-hartzea ziurtatu behar da.

Horren harira eginiko lehenengo ekimenak Pobreziaren Aurkako Estrategiak dira, MDFk eta MBk bultzatutako ekimen horien bidez giza garapenari eta gizartearen parte-hartzeari lotutako helburuak sartu nahi dira egitura doikuntza politikitetan.

Egitura Doikuntza Programek (PAE) gizartean izandako ondorio latzak ikusita, Munduko Bankuak Pobreziaren kontrako Borrokarako Estrategia Dokumentuak (DELP) deritzenak indarrean jarri zituen. Egitura Doikuntza Programak ez bezala, dokumentu horiek tokian tokiko agintari nazionalen eta gizarte zibilaren artean eztabaidatu behar dira. Dokumentuek herrialdearen pobrezia maila neurtu eta hura murrizteko helburuak zehaztu behar dituzte. Amaitzeko, programa sortu eta aurrekontua egin behar da, finkatutako helburuak lortzeari begira.

Garatze bidean diren herrialdeetako sindikatuen erakundeek estrategia horietan parte hartzeko aukera izan dezaten, CIOStk Pobreziaren kontrako Borrokarako Estrategia Dokumentuei buruzko (DELP)²⁶ Gida egin du.

²⁵FSAP (2002), "Globalización, movimiento sindical y cooperación" izeneko tailerraren oinarriak. Madril.

²⁶CIOStk (2002). Guía de la CIOStk para los Documentos de Estrategia de Lucha contra la Pobreza (DELP). Brusela, CIOStk. In OTG www.observatoriodeltrabajo.org



ATTAC (Herriarrei Laguntzeko Espekulazio Transakzioen gaineko Tasa ezartzearen aldeko Elkarte)

Frantzia sortu zen 1998an. Gaur egun, 30 bat herrialdetan erakunde beregain gisa eratu da, tokian tokiko gizarte mugimenduen eta gizartearen errealitatea aintzat hartuz. Madrilgo ATTAC elkarte merkatuen gaineko kontrol demokratikoa ezartzearen aldeko nazioarteko mugimendu gisa ageri zaigu. Espainiako Estatuan 14 hiri baino gehiagotan daude ATTAC elkarteak.



Bidezko Merkataritza

Hegoaldeko ekoizle txikiak eginiko produktuak Iparraldeko merkatuetan sartzearen alde egiten duen merkataritza da. Lan eta ekologia irizpideak errespetatzen ditu, zuzentasunean eta elkartasunean oinarritzen da eta pobrezia murrizteko xedea du.

6.3. Bestelako mundu baten aldeko borroka

Globalizazioaren aurka baino gehiago Munduko Sindikatuek globalizazioaren erakundeak erabat berrituko dituen bestelako mundializazioaren alde egiten dute. G8a zalantzan jarri daiteke; alabaina, nazioarteko sindikalgintzak ez du NDF, MME eta MB -aginte nazionalako ordezkariak osatuak- erakundeak desagertzearen alde egingo, horien eraldaketa sakonaren alde baizik. Batez ere, haien demokrati-zazioari eta nazioarteko sindikatuen erakundeekin kontsulta formalerako prozedurak ezartzeari dagokionez. Horren harira, Bakea eta Elkartasunak uste du hala munduko sindikatuen mugimenduak nola nazioarteko erakundeek Hegoaldeko herrialdeen protagonismoaren alde egin behar dutela, Hegoaldeko eta Iparraldeko herrialdeen arteko berdintasuna lortzeko.

CSlren SORRERA BILTZARRA

Eskubide sindikalen defentsa eta sustapena

Biltzarrean CSlren konpromisoa lortu zen eskubide sindikalen bortxaketen aurka borrokatzeko, edonon gertatuta ere eta inolako bereizketarik egin gabe. Benetan uste baitugu eskubide sindikalak giza esku-bideen barruan sartzen direla osoki.

CSIk defendatu eta sustatu egin du LANEk eskubide sindikalak definitzeko nazioarteko arauak berrikusten eta zehazten duen eginkizuna, nazioz gaindiko elkartasun ekintzak egiteko eskubidea barne.

Biltzarrak eskubide sindikalak giza eskubideak direla berretsi du. Eskubide sindikalak errespetatzea ezinbesteko baldintza da, lantokian, gizartean, eta oro har, munduan justizia lortu ahal izateko.

CSlren Sorrera Biltzarra, 2006ko azaroa

Bazterkeriaren aurka borrokatzea

Biltzarrean CSIren konpromisoa lortu zen, bazterkeria adierazpen mota guztiekin amaitzeko. Horrela, gaur egun enplegurik gabe dauden eta erlijio, kolore, nazionalitate, jatorri etniko, sexu orientazio, genero identitate, iritzi publiko, jatorri sozial, adin edo elbarritasun arrazoiak direla-eta erasoak eta jazarpenak jasotzen dituzten milioika pertsonen berdintasun, duintasun eta justizia baldintzetan bizi eta lan egiteko aukera izango dute.

Berdintasuna lortzea

Biltzarrean CSIren konpromisoa lortu zen, genero ikuspegia bere politika ildoetan, ekintzetan eta programetan sartzeko, bete-betean nahiz zeharka.

Era berean, CSIk ekintza programa bat zehaztuko du; alde batetik, genero berdintasuna sindikatuen egituretan sustatzeko; eta bestetik, emakumeek jasaten dituzten bazterkeri, jazarpen eta gehiegikeri orori aurre egiteko. Era berean, emakumeek sindikatuen mugimenduan aurrera egiteko dituzten oztopoak ezabatu nahi dira.

Haurren lanarekin amaitzea

Biltzarrean CSIren konpromisoa lortu zen, nazioarteko sindikatu mugimenduak urtetan eginiko lanarekin aurrera egin dezan. Lan horren bidez, haurren lanarekin amaitu eta haur guztiek eskolara joateko aukera dutela ziurtatu nahi da. Bestalde, biltzarrak erabat gaitzesten ditu haurren lana, saihestezina, ekonomikoki errentagarria, gizartean onargarria eta haurren nahiz familientzako onuragarria dela dioten argudioak.



Munduko Gizarte Foroa (FSM)

Brasilgo GKEen hainbat koordinakunde eta gizarte talderen artean sortu zen 2000. urtean -horien artean CUT zegoen, Brasilgo sindikatu nagusia eta CIOSLko afiliatua-. Hasiera batean, herrialde aberatsenak eta boteretsuenak biltzen dituen Davosko Foroaren alternatiba gisa sortu zen Munduko Gizarte Foroa. 2001. urtean Porto Alegren -garai hartan, herritarren parte-hartze demokratikoko metodoak erabiltzen zituen Langileen Alderdia zegoen agintean- I. Munduko Gizarte Foroa egin zen. Parte-hartzea handia izan zen eta oihartzun nabarmena izan zuen munduko komunikabideetan.

MUNDUKO GIZARTE FOROA

Nazioarteko sindikalgintzak Munduko Gizarte Foroa parte hartu du, globalizaziori alternatiba demokratikoa bilatze bidean aliatu naturalak diren gizarte mugimenduekin eta GKEekin batera.

Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroa (FSM) globalizazio neoliberalaren ereduari aurre egiteko erreferente nagusia eta bateratua bilakatu da. Nazioarteko sindikatu mugimenduak foruaren edizio guztietan parte hartu du eta Nazioarteko Kontseiluko kide izatera iritsi da; era berean, hitzaldiak, mintegiak eta tailer zehatzak antolatu izan ditu.

FSMa geroz eta gutxiago da "globalizazioaren aurkakoa" eta geroz eta gehiago "bestelako globalizazioaren" aldekoa; hau da, globalizazio neoliberalaren ordezkatuko duen eredu alternatiboa erakitzearen aldekoa. Taldeen aniztasunari esker, Foru honetan bat datoz, besteak beste, sindikatuak, nekazarien mugimenduak, ekologistak, mugimendu feministak, talde indigenak, erakunde erlijiosoak eta gizarte zibileko erakundeak.

Dagoeneko Munduko Gizarte Foroa ez da Porto Alegren egiten, izan ere, ekimena deszentralizatzeko asmoz, azken urteotan beste herrialdeetako hainbat hiritan egin da. 2004an Bombayn (India) egin zen, eta 2006. urtean, berriz, hiru hiritan eta hiru datatan egin zen: Bamakon (Mali), Karatxin (Pakistan) eta Caracasen (Venezuela).

Aurten, 2007. urtean, foroaren zazpigarren edizioa egin da Nairobin (Kenya), bertan, 100.000 pertsonatik gora elkartu dira, 100 herrialde baino gehiagotik etorriak eta 1.000 inguru GGKEen ordezkeri gisa. "Pertsonen borroka, pertsonen alternatibak" lemapean bildu dira foroaren parte-hartzaileak.

Munduko Gizarte Foroa Bestelako Mundu Baten alde egiteko proposamenen arragoa bihurtu da urtetik urtera.

Ez ditugu proposamenak banan-banan aztertuko, baina nabarmenenak aipatu nahi ditugu:

- Jarduera ekonomikoaren funtsezko alderdien plangintza egitea, gizartearen parte-hartzea bermatuz.

Adibideak: Porto Alegren (Brasil) batzarrak eta beste bitarteko batzuk erabiliz, herritarrek hiriko aurrekontuak egiteko eta politika ildoak zehazteko prozesuetan parte hartzen dute. 1989an 403 pertonek parte hartu zuten eta 1999an 20.000. Espainiako hainbat hiritan -Rubi, Albacete, Las Cabezas de San Juan,...- aurreikusita daude edo egite bidean dira Porto Alegreko ereduari jarraituz sortutako prozesuak.

- Pausoak ematea inmigrazio politika bidezko baten alde.
- Zigorgabetasunaren aurka borrokatzea (Nazioarteko Zigor Epaitegiaren sorrerak garrantzi handia izan du gai horri dagokionez)
- Gatazken prebentzioa eta bakea: armen ekoizpenari zerga bat jartzeko proposamena interesgarria izan da. Gainera oso erraz bildu daiteke, armen ekoizpena oso leku jakinetan egiten baita. AEBek, Erresuma Batuak eta Frantziak munduko armen salmentaren %70 kontrolatzen dute.





Garapenerako Laguntza Ofiziala (AOD)

Hegoaldean garapena sustatzeko asmoz, Iparraldeko sektore publiko batek hitzartutako lankidetzari deritzo. Nazio Batuek Iparraldeko herrialdeei BPGdren %0,7 Garapenerako Laguntza Ofizial gisa bideratzeko gomendatzen die, baina herrialde gutxik betetzen dute gomendioa. AODa lankidetzari bi eratarik bidera daiteke, lankidetzari multilateralaren izenekoaren bidez -NBE bezalako nazioarteko erakundeek hainbat herrialdeetatik datozen funtsak bilduz-, edo, estatuen arteko alde biko lankidetzaren bidez. Horrelakoetan, dohaintzak, edo bestela, maileguak ematen dira, merkatuaren finantzaketa baldintzak hobetuz. Herrialde emaleek ekoiztutako produktuen inportazioari lotutako maileguak izan ohi dira.

6.4. Pobreziaren aurkako borroka

POBREZIA ZERO KANPAINA

CONGDEn federatutako 400 GKE baino gehiagok eta Espainiako gizarte zibilaren eragile ordezkari esanguratsuek deialdi globala egin zuten 2005ean pobreziaren aurka borrokatzeko. 100 herrialdeetako erakunde eta gizarte mugimendu lankidetzari estuan aritu ziren ekimean. Pobreziarekin amaitzeko inoiz egin den mobilizaziorik handiena izan da.

2000. urtean Nazio Batuen Milurteko Adierazpena sinatu zuten Gobernuak eta Estatuak hartutako konpromisoak bildu zituen kanpaina horrek. Herrialde sinatzaileek 2015. urtea baino lehen zortzi helburu lortzeko konpromisoa hartu zuten. Halaber, borroka irmoa egiteko konpromisoa hartu zuten, besteak beste, diru sarreren eskasiari, goseari, genero desberdintasunari, ingurumenaren hondamenari eta hezkuntza, arreta mediku eta ur edangarriaren eskasiari aurre egiteko.

Nazioarteko testuinguru horretan, pobrezia zero kanpainaren bidez milurteko adierazpenaren helburuak konpromiso saihestezina bihurtu nahi dira, politika arloan ez ezik arlo ekonomikoan eta sozialean ere. Martxan dagoen kanpaina honen web orria honako hau da: www.probrezacero.org.





7. LANKIDETZA

Internazionalismoaren eta elkartasunaren oinarri berrituen ikuspegitik, gure testuinguruan, garapen prozesu iraunkorra eta munduan integratua lortzeko nazioarteko ekintza sindikal gisa defini daiteke lankidetza. Berariazko ezaugarriak dituen sindikatuen arteko lankidetza horren nortasuna argi eta garbi definituta dago eta ez du inolako antzik neokolonialismoaren azpijoko modura potentzi batzuek emandako nazioarteko laguntzekin.

CCOOren V. Biltzarra

7.1. Garapenaren finantzaketa: Garapenerako laguntza ofiziala

Gidan ikusi dugun moduan, herrialde garatuen eta garatze bidean diren herrialdeen artean areagotzen ari den desberdintasunari aurre egiteko, bi aldeen arteko harremanen egitura aldatu beharra dago. Ez dugu pentsatu behar garapenerako lankidetza erabateko konponbidea denik -gure ustez, hegoaldearen pobretzea egiturazko alderdiei lotuta dago-, baina gogoan izan behar dugu garapenerako lankidetzak garrantzi handia duela.

Jose Antonio Alonsok dioen moduan, jarduera ekonomikoen erregulatzailer nagusi gisa merkataritza finkatu izanak herrialdeen arteko²⁷ desberdintasunak areagotu ditu. Horrek erakutsi du, halaber, ekintza publikoaren oinarrietara jo beharko dugula gaur egungo desberdintasun mailak arintzeko.

²⁷ José Antonio Alonso (2003), "Financiación para el desarrollo. Algunas consideraciones" in Ya es hora de cumplir. Plataforma 2015 y más. Madril. Plataforma 2015 y más.



Garapeneraren finantzaketari buruzko Monterreyko goi bilera (2002)

Nazio Batuen erakundeak antolatu zuen herrialde garatuen konpromisoa lortzeko. Horren helburua pobretutako herrialdeentzako baliabideak sortzea zen. Monterreyko akordioaren arabera, %0,7 helmuga izanda, herrialde sinatzaileek tarteko konpromiso bat beteko zutela aurreikusi zen, hain zuzen: Europako batez bestekoa %0,39 izatea 2006. urtean eta batez bestekoaren azpitik daudenei dagokienez -Espainia bezala- %0,33ra iristea urte berean.

Garapenerako Laguntza Ofiziala (AOD) OCDEren (Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundea) Garapenerako Laguntza Batzordeak balioesten du mundu osoan. Erakundeko kideak laguntza horietarako BPGdren (Barne Produktu Gordina) %0,22 baino gehiago ematen duten herrialdeak dira.

OCDEren Garapenerako Laguntza Batzordeak 1996an AODren kalitatearen gaineko balorazioa egitean ateratako ondorioen arabera; batetik, emaile-hartzaile harremana hobetu behar da orekatuagoa, partekatuagoa eta egonkorragoa izan dadin; eta bestetik, hartzaileak bere egin behar du garapen estrategia. Halaber, herrialde emailearen interesek AOD gehiegi baldintzatzen dutela ondorioztatu zen, batez ere, berehalako irabazia lortzen ez denean -Espainiar Gobernuaren Fad Kredituak, esate baterako-.

Bestalde, 80ko hamarkadaz geroztik baieztatu denez, AODren fluxuak behera egin du munduan. Estatuek eta erakunde multilateralek bere gain hartutako Milurtekoaren Konpromisoek eta Monterreyn eginiko Garapenerako Finantza goi-bileraren emaitzek erakusten dutenez, adierazpenen eta gertaeren artean bide luzea dago eta nazioarteko komunitateak ez du bide hori egiteko asmorik.

Iparraldeko herrialdeek Monterreyn hartutako konpromisoak ez dira aski Milurtekoaren Konpromisoak betetzeko behar diren funtsak lortzeko. Horretarako, 40 eta 60 milioi dolar edo munduko BPGdren %0,5 beharko litzateke. Goi-bilera horretan Europak %0,39ko konpromisoa hartu zuen eta 90eko hamarkadan 0,45era iritsi zen. Bestalde, AEBek %0,10 irigarriaren igoera aldarrikatu zuten.



7.2. Espainia

1981. urtera arte, nazioarteko laguntzaren herrialde hartzaileztat hartu zen Espainia. 1998an, ordea, %0,7 mugimenduaren eraginez, espainiar gizarteak herrialdearen BPGdren zati bat (%0,7) Garapenerako Laguntza gisa emateko eskatu zien botere publikoei.

Espainiako gobernuak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 23/1998 Legea onartu zuen 1998ko uztailaren 7an. Horren jatorria 1978ko Espainiako Konstituzioaren hitzaurrea da, honela dio hitzez hitz: "Espainiar Nazioak harreman baketsuak sendotu eta lurreko herri guztien arteko erkidego eragilea sortzeko borondatea aldarrikatzen du".

Lege hori Espainiako Lankidetzaren Gida Planean (2001-2004) zehaztu zen. Bertan, sindikatuak nazioarteko lankidetzaren eragileztat hartu ziren, administrazio publiko, enpresa erakunde, garapenerako gobernuz kanpoko erakunde eta unibertsitateekin batera.

Espainiako Estatuan gobernuz kanpoko lankidetzaren mugimenduak %0,7 eskatu du beti; dena den, lehen esan dugun moduan, Monterreyko Konpromisoekin batera egutegi berria finkatu da. Halaber, Garapenerako Laguntzaren Kalitateari dagokionez, honako eskaera hauek egin zaizkio gobernuari: %0,15 gutxien aurreratutako herrialdeei ematea, laguntza Espainiako ondasunen erosketetatik eta zerbitzuetatik bereiztea eta laguntza horren %20 oinarrizko gizarte zerbitzuetara bideratzea -20/20 ekimenaren harira-.



Gobernuz kanpoko lankidetzaren

Hegoaldeko eta iparraldeko gizarte erakundearen artean ezarritako lankidetzaren erakundeek hainbat modu dituzte baliabideak lortzeko. Baliabideak sortu daitezke (kuotak, dohaintzak, zerbitzuen salmentak,...), edo bestela, edozein administrazio, instituzio edo nazioarteko erakunde emandako diru laguntzetatik jasotako funtsak erabili daitezke. Espainiako estatuko AOD osoa aintzat hartuz, GGKEek horren %10 bat kudeatzen dute.



CONGDE

Gaur egun, 90 GGKE baino gehiagok osatzen dute Espainiako GGKEen koordinakundea. Horrez gain, Erkidegoetako 15 koordinakunde daude. Guztira, 400 bat erakundek dihardute nazioarteko lankidetzan. Bestek beste, garapena, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza lantzeaz arduratzen dira.

7.2.1. Euskadi

Euskadin Nazioarteko elkartasun programak eta lankidetzak publikoak bideratzeko tresna nagusia FOCAD da (Garapenerako Laguntza eta Lankidetzak Funtza) eta Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 1993an. Gaur egun Euskadi da herrialde pobreei laguntza ekonomiko gehien ematen dien erkidegoa, urteko aurrekontu eragilearen %0,7 bideratzen baita horretarako. Halere, ez da iristen BPGd (Barne Produktu Gordina) osoaren %7ra. 2001-2006 urte bitartean 156.683.633 euro bideratu ziren laguntza gisa.

7.3. GGKEen Lankidetzak Garapenerako

Garapenerako lankidetzak aurrerakoia ezin da ulertu laguntza gisa terminoaren esanahi humanitarioan, ezta elkartasun gisa ere karitatearen aldaera laikoan. Lankidetzak lana elkarrekin egitea esan nahi du. Beraz, garapenerako lankidetzak Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte erakundearen arteko elkarlana izan behar du, batez ere. Berdintasunean oinarritutako elkarlan horren helburua giza garapen iraunkorra sustatzea izango da.

Horri dagokionez, CONGDEn (Espainiako Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundearen Koordinakundea) 100 erakunde egonkor baino gehiago daude eta guztiek Nazioarteko Elkartasunerako egiten dute lan. ONGDn Koordinakunde berak dioten moduan erakunde horiek guztiek dute gutxieneko egitura, (bulegoa, langileak, baliabide ekonomikoak), nortasun juridikoa (elkarrekin edo fundazioak izan daitezke) eta indarrean dagoen legediaren arabera lege ahalmena. Halaber, bazkideen nahiz laguntzaileen bitartez bideratutako gizartearen babesa eta parte-hartzea beharrezkoa dute. Erakunde horien lan ezagunenak "hirugarren munduko herrialdeak" izeneko garapen proiektuak dira; dena den, giza laguntza eta larrialdiko laguntza ere ematen dute gatazka edo hondamen egoeretan.

Halaber, GGKEek iritzi publikoari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egiten dituzte eta garapenerako hezkuntzaz arduratzen dira.

Gaur egungo erakundeen aniztasuna ikusita, GGKEek jokaera kode bat sortu dute gutxieneko jarduera eredu komuna finkatzeko. Autoregulazio kode horren arabera, GGKEek prozesu gisa ulertutako garapena bultzatzen dute, pobreziaarekin amaitzeko borrokatzen dute eta Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzen dira. Hiru jarduera eremu horiei esker, garapenerako sindikatuen lankidetzak benetako esanahia hartzen du.

7.3.1. Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Euskadiko GGKEen koordinakundea 1988. urtean sortu zen, lankidetzan aritzeko, hausnartzeko, hitz egiteko eta lana egiteko helburuarekin. Hartara, ahal den neurrian behintzat, koordinakundeko kide diren GGKEen jarduerak koordinatuak, koherenteak, egokiak eta begirunezkoak izango dira. Hasiera batean 11 kidek osatu zuten, eta gaur egun, berriz, 75 GGKE daude koordinakundean eta 100 egoitzatik gora dituzte Euskadiko lurraldeetan.

Lurralde bakoitzaren jarduera talde eragileetan oinarritzen da (generoa, politika, garapenerako hezkuntza, gizarte mugimenduak, etab). GGKEetako kideek osatutako talde txiki horietan eskuzabaltasunez egiten da lan.

Koordinakundeak zerbitzu publikoa du. Bertatik, partikularrek, erakunde publiko nahiz pribatuek, komunikabideek, hezkuntza zentroek eta beste hainbatek eginiko eskaerei erantzuten zaie. Horrez gain, koordinazio lanak egin, hitzaldiak eman, jardunaldiak antolatu eta beste hainbat ekimen egiten dira.



Garapenerako Gubernuz Kanpoko Erakundeak.

Gizarte erakunde horiek hegoaldean garapena sustatzearen aldeko lana egiten dute askotariko lanak eginez, hala nola iparraldeko herrialdeetan hegoaldeko arazoek berri emateko sentsibilizazio kanpainak egin, edo garapen proiektuak egin eta finantzatu.



Eskubide Ekonomikoak, Zibilak eta Kulturalak

Giza eskubideak bi multzotan biltzen dira: Eskubide Zibilak eta Politikoak, eta Eskubide Ekonomikoak, Sozialak eta Kulturalak. Azken horien artean jasota daude, laneko eskubidea (eginiko lanaren araberako soldata, sindikatuak sortzeko eta afiliatzeko eskubidea), bizitza maila duinerako eskubidea (elikagaia, jantzia eta etxebizitza duinerako eskubidea) eta kultura parte hartzeko eskubidea.

7.4. Garapenerako Sindikatuen Lankidetzaz

Garapenerako sindikatuen lankidetzaren justifikazio nagusia da sindikatuak gaur egun eta etorkizunari begira giza garapen iraunkorra lortzeko duten eginkizuna:

- Politikari dagokionez, ezin dugu demokraziarik eta giza eskubideen errespeturik gabeko garapen prozesua ulertu, beraz, politikan eta sindikalgintzan parte hartzea ezinbestekoa da.
- Gizarteari dagokionez, elkarriketa demokratikoa bermatzeko "hiru alderdi" izenekoaren zutabe bat sindikatuak osatzen dute, eta beste biak enpresek eta gobernuak.
- Ekonomiari dagokionez, garapen kontzeptuak giza garapen iraunkorrari lotutako zuzentasun adiera bereganatzen du. Bestalde, garapena "jendeak bizitza luze, osasuntsu eta sortzailea izan dezan, pertsonen aukerak areagotzeko prozesu" gisa ulertzen badugu, hazkundearen banaketa ahalbidetuko duen gizarte elkarriketa sortzeko ezinbestekoa da sindikatuen parte-hartzea.

Eginkizun horiei begira, CCOO sindikatuak Bakea eta Elkartasuna sortu zuen, honako helburu hauekin: herrien garapen ekonomiko eta soziala lortzea; giza eskubideak bultzatzea; pobrezia aurre egiten laguntzea; sindikalgintza demokratikoa eta klasekoa gehien behar duten herrialdeetan bultzatzea; eta amaitzeko, Espainiako langileak munduko arazo ekonomiko, sozial eta laboraletan sentsibilizatzea, nazioarteko lankidetzaz eginkizun horiei begira haien lankidetzaz lortzeko.



CCOO



Paz y solidaridad

7.5. Bakea eta Elkartasuna

Bakea eta Elkartasuna fundazioek Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKE) Sare bat osatzen dute eta lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren aldeko lana egiten dute. Langileen Batzordeak eratu zituen 1989an.

Azken hamar urteotan, Bakea eta Elkartasuna hainbat lurraldetan finkatzen joan da, eta gaur egun, 17 erakundek osatzen dute Sarea. Erakundeek egoitzak dituzte autonomia erkide guztietan eta haien arteko koordinazioa Serafin Aliaga Bakea eta Elkartasuna Konfederazioaren Fundaziotik egiten da. Halaber, fundazioek Estatuko eta Erkidegoetako GGKEen Koordinakundeetan parte hartzen dute.

Sortu zenetik Bakea eta Elkartasunak lana egin du, Latinoamerikako, Magrebeko eta Ekialde Hurbileko erakundeekin nahiz pertsonekin, duintasunez bizitzeko duten eskubidearen alde eginez eta haien eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak defendatuz. Era berean, Fundazioak Espainiako langileen elkartasuna bilatu du beti, eginkizun horietan inplika daitezten. Horretarako, eta CCOOk elkartasunarekin duen konpromisoaren adierazpen gisa, sindikatuaren egitura bakoitzak diru sarreren %0,7 ematen du Bakea eta Elkartasunak eginiko ekimenak finantzatzeko.

7.5.1. Euskadiko Bakea eta Elkartasuna

Guk nahi dugun munduan herri eta hizkuntza guztiak sartzen dira. Duintasuna zubi bat da, beste aldearen beharra duena etzanda jartzeko eta beste norbaiten beharra duena begiratzeko eta elkarri begira egoteko. Eta bata ez da bestea baino hobea, edo gehiago. Duintasuna aitortza eta errespetua da. Horrela baino ez dugu eraikiko garai batean munduari esaten zitzaion etxe hura, non berdinak garen guztiok sartuko gara desberdinak garelako

Lacandona Oihanaren Adierazpena

Jasotzea ere barneratzen duen elkartasuna, hau da, joan-etorriko elkartasuna, horixe da Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioan abian jarri nahi dugun elkartasuna.

Bilbon eratu zen 1993. urtean eta helburua argia izan da hasieratik: Euskaditik giza garapen iraunkorra bultzatzea, gizarte bidezkoago eta zuzenago batean oinarrituta.

Ibilbide luze horretan Latinoamerikako hainbat komunitate eta herri izan ditugu bidelagun, hala nola Guatemala, Salvador, Chiapas (Mexiko), Ekuador eta Bolivia. Tokian tokiko langileen, nekazarien, herri indigena nahiz emakume taldeen garapen, eraldatze eta gizarte nahiz komunitate jabekuntza prozesuetan parte hartu dugu.

Horrez gain, Euskadin egiten dugun lanaren bidez, gizartean eta lan munduan gogoeta kritikoa bultzatu nahi dugu, konpromiso handiagoko gizartea lortzeko; hain zuzen ere, globalizazio ekonomiko neoliberalaren ereduak zalantzan jarriko duena eta horri aurre egingo diona.

Nola ulertzen du Bakea eta Elkartasunak...

... garapena?

Garapenerako Nazio Batuen Erakundeak dioen moduan, giza garapena guretzat inguru bat sortzea da non pertsonak modu eraginkorrean eta sortzailean bizitzeko aukera izango duten, beren beharrek eta interesekin bat eginez.

Gure ustez, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko lankidetzak lantzen eta elkarrekin ikasten eraikiko dugu, garapen eredu zuzena eta ekologiararen ikuspegi bideragarria. Eredu horren barruan, ekonomiararen hazkundeak bat egingo du, besteak beste, gizarte demokratikoaren egituratzearekin, gizarte eta genero zuzentasunarekin, ingurumenaren iraunkortasunarekin, giza askatasunarekin eta kulturen arteko errespetuarekin.

... garapenerako lankidetzak?

Bestelako garapen ereduak indartzen laguntzea, hain zuzen, gizartetik eta bere erakundeetatik sortuko direnak, Globalizazioak gehien kaltetzen dituen taldeei begira lan egingo dutenak (horren adierazpen guztietan, hau da: ekonomia, kultura, politika, ingurumena,...) eta talde horien interesak defendatuko dituenak.

*Euskadiko Bakea eta Elkartasunaren plan
estrategikoa, 2005-2008*

Euskadiko Bakea eta Elkartasuna fundazioaren arabera, lankidetzaren aritzea da hegoaldeko herri erakundeek eta sindikatuen elkarrekin laneko eta herrietako eskubideen defentsan bultzatutako garapen prozesuak babestea. Prozesu horiek, batez ere, langileei, herri indigenei eta emakumei zuzendutako izaten dira.

Horregatik, lankidetzaren proiektu osatuak, autozentratuak eta ekologikoki bideragarriak egiten dira. Halaber, proiektuen onura jasoko duten herritarrek bere egingo dituzten proiektuak nahi ditugu, besteak beste, gizarteak kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezan eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta soziokulturala berma dadin.

... garapenerako hezkuntza?

Euskal herritarrengan kontzientzia kritikoa sortzea gure garapen ereduaren (gure ekoizpen, kontsumo, aurrezpen, politika, etab ereduak gidatzen dituen) eta Hegoaldeko herrialdeen pobrezia egoeraren artean dagoen erlazioari buruz.

Euskadiko Bakea eta Elkartasunaren plan
estrategikoa, 2005-2008

Bakea eta Elkartasunean garapenerako hezkuntza programak eta gizartearen sentsibilizatzeko ekimenak egiten dira. Horien bidez, gizarte sektore askoren pobretze arrazoiak ulertarazi nahi dira; hartara, langileek, munduari buruzko ezagutza sakonagoa izanda, errazago parte hartuko dute pertsona guztiarentzatko bizitza eta lan duinaren aldeko defentsan.

... garapenerako politikak duen eragina?

Euskadiko Bakea eta Elkartasunak, beste erakunde batzuekin bat eginez, presio politikoa egiteko ekimenetan ere parte hartzen du. Horien helburua gaur egungo garapen politikak aldatzea da, herritar guztien onerako.

7.6. Lan arloko elkartasun esperientziak

Iparraldeko eta Hegoaldeko langileek egunero egiten dituzten milaka elkartasun ekimenak ez dira mugatzen jarraian aipatuko ditugun esperientzietara. Besterik gabe, Bakea eta Elkartasuna fundazioak Espainiako estatuaren hainbat lekutan babestu dituen ibilbideak dira. Jakina, eredu gisa baliagarri izan daitezke.

%0,7 taldeak lantokietan

1994. urtean, %0,7 Plataformak Espainiako Gobernuari presio egiteko kanpaina bati ekin zion, kopuru hori Garapenerako Laguntzetara bideratzeko eskatuz. Kanpaina horrek izandako arrakastaren harira, lantokietan talde txikiak sortzen joan dira. Horien bidez, langileak sentsibilizatu nahi dira, lankidetzaren egitasmoak finantzatzeko langile bakoitzak egiten duen ekarpenaren garrantziaz jabe daitezen.

Sindikatuaren delegatuek, langile beregainek, eta zenbaitetan, enpresako ordezkariak osatutako talde horiek kanpaina dinamizatzeko ardura dute, honako eginkizun hauekin: GGKEek beren proiektuak aurkezteko deialdia argitaratzea eta aukeratzea; finantzaketa proposatzea; langileek egitasmo jakin batera, edo batzuetara, beren soldataren %0,7ko ekarpena, edo nahi duten ekarpena, egiteko bideak finkatzea; ondorengo jarraipen lana egitea; langile guztiek egindako lanari buruzko informazioa izan dezaten buletina egitea.

CCOO sindikatuaren **egitura bakoitzak bere diru sarreren %0,7 ematen du Bakea eta Elkartasunak eginiko ekimenak finantzatzeko estatu osoan**. CCOOren erakunde sindikalek Elkartasun eta Lankidetzaren lana errazten dute akordioaren bidez. Horien arabera, hainbat pertsonak Bakea eta Elkartasuna fundazioan lana egiten eta laguntzen dute. Giza baliabideen laguntza honi esker, Bakea eta Elkartasuna Fundazioak sindikatu osoan eginiko lana erraztu da, eta geroz eta gutxiago geratzen da ordu sindikalen %0,7 egia bihurtzeko.



Oso ezaguna ez izan arren, 1972an Nazio Batuek Estatu Garatuek gizarte ekarpena osatu behar zutela hitzartu zuten, BPGdren %1,1era iritsi arte (%0,7+%0.4). Nolanahi ere, munduko ekonomiaren gidaritzan enpresak duten erantzukizuna aski finkatutako ebidentzia da. Horregatik, sarri, %0,7 taldeek enpresaren konpromisoa lortzeko ahalegina egiten dute, haren ekarpena bertako langileek eginikoaren parekoa edo altuagoa izan dadin.

Adibide moduan, Katalunian abian diren hainbat ekimen aipatuko ditugu. "%0,7a, zeure kontua ere bada", Bartzelonako Metropoli Areako (BMA) Udallerrien Elkarteko langileek egina. Talde dinamizatzailea enpresa komiteko kideek, CCOO eta UGT sindikatuek eta borondatezko langileek osatzen dute. Zuzendaritzak langile guztien artean jarritako kopuru bera ematen du, proiektu bakoitzerako. Telefonicako langileen %0,7 taldearen SO,7IDARITAT eta Santa Coloma de Gramaneteko Udaleko Langileen ZEROSET-I-MES izeneko ekimenak ildo beretik eginiko esperientziak dira. Euskadin, berriz, CCOOren Irakaskuntza taldeak Salvadorreko proiektu bat laguntzen du bere %0,7 emanez. "Genero ikuspegiaren araberrako Eskola Demokratiko baterako proposamen pedagogikoa eta antolakuntza" izeneko proiektua martxan dago jada Salvadorreko 21 komunitate, 11 udalerrri eta 7 departamentutan. Horren bidez, irakaskuntza eta ikaskuntza programak pertsona guztien eskura jarri nahi dira, arreta berezia jarriz neskatilengan eta emakumeengan.

Funtsak jasotzea

Herralde pobretuei emandako laguntza ekonomikoa, BBVAren zuzendaritzaren, CCOO eta UGT sindikatuen eta Confederacion de Cuadros delakoaren arteko akordioaren bidez, kontu bat ireki da langileen ekarpenak jasotzeko. Gero, enpresak langileen ekarpen bera egiten du. Aldizka, jasotako kopuru osoa zati berdinetan banatzen da hainbat GGKEren artean. CES Kliniketako langileek urteak daramatzate soldataren %0,7 ematen eta bertako zuzendaritzak ere ekarpena egiten du.

Jasotako diru guztia Nikaraguako sindikatu baten ikastetxera bidaltzen da (FETSALUD).

Hona hemen egindako beste hainbat ekimen: Deutsche Bankeko langileek irekitako Hirugarren Mundua Laguntzeko Kontua. Terrasako Caixaren langileek bultzatutako elkartasun Txartelak; ekimen horren bidez, VISA txarteletako komisioetatik jasotako irabazien ehuneko jakin bat lankidetzara proiektuetara bideratzen da. Caja Madriden antzeko ekimen bat dago; horren arabera, erakundeko langileek bultzatutako proiektuak langileen artean zabaltzen dira funtsak biltzeko helburu-arekin. Erakundeak ere laguntza osagarriak ematen ditu.

Funtsak biltzeko kanpainak, hainbat kanpaina egin dira proiektu jakinen finantzaketan laguntzeko, esate baterako: Valentziako Udaleko CCOO sindikatuak funtsak jasotzen ditu Chiapaseko komunitate indigenen nekazaritza garapen iraunkorreko programa baterako; Zaragozako Udaleko CCOO sindikatuak Chiapasen eta Nikaraguan proiektuak finantzatzen lagundu du; Plasereko CCOO sindikatuak lankidetzara proiektuak babesten ditu Guatemalan; Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak funtsak jasotzen ditu CSNko Gizarte Ekintza Batzordearen bidez;...

Materiala jasotzeko kanpaina. Nafarroako Fundazioak AP AMORTIGUADORESeko lagunek bultzatutako ekimen bat bideratzen lagundu zuen. Galtzak, alkandorak, mantalak eta laneko jantziak batuta 600 pieza baino gehiago jaso ziren. Horiez gain, partikularrek edo bertako lantokiak ere arropa eman zuten. Jasotako materiala bi lekutara bidali zen: Manzanillora (Kuba) eta Granadako (Nikaragua) lanbide tradizionalen eskola tailer batera.

Hegoalde eta Iparraldeko sindikatu erakundeen arteko lankidetzak horizontala

Ekimen hauen bidez, hainbat herrialdeetatik datozen eta sektore berean lanean diharduten langileak elkartzen dira eta esperientziak elkar trukatzeko dituzte. Horren harira, Serafin Aliaga Bakea eta Elkartasuna Fundazioak Algeriako eta Espainiako kazetariaren arteko harremana sustatu du eta baita Marokoko eta Kataluniako ehungintza sektoreko langileen artekoa ere.

Era berean, Serafin Aliaga Bakea eta Elkartasuna Fundazioak lankidetzak harreman egonkorrak bultzatu ditu, Latinoamerikako eta herrialde arabiarretako sindikatu erakundeekin eta Espainiako estatuan bakoitzak dituen federazioen eta konfederazioen artean. Honako hauek nabarmentzen ditugu: CTA (Argentina), CGTP (Peru), CUT (Kolonbia), PIT-CNT (Uruguai), UGTA (Algeria), UGTT (Tunisia), CDT eta UGTM (Maroko) eta PGFTU (Palestina).

Iparraldeko eta Hegoaldeko enpresa eta erakunde publikoen arteko lankidetzak hitzarmenak. Nahiko arruntak izan ohi dira ospitaleen arteko senidetzeak (esate baterako, Bartzelonako Ospitale Klinikoaren eta Sahararren Bachir Saleh Ospitale Nazionalaren artekoa). Hegoaldeko erakundeei laguntzeko asmoz langileek bultzatutako ekimenak dira (langileen trebakuntza, materialaren hornikuntza, langileen arteko trukea, etab). Lankidetzak horizontaleko harremanak sustatu nahi dira, Hegoaldean eta Iparraldean erakunde bertsuetan lana egiten duten langileen arteko lankidetzak egonkorra izan dadin.

Gaztela Mantxako Bakea eta Elkartasuna Fundazioak, Gaztela Mantxako CCOOek eta Unibertsitateak proiektu bat martxan jarri dute, Central de Trabajadores Argentinos (CTA) erakundeko abokatuak prestatzeko. Horren bidez, eskubide sindikalen defentsan lagundu nahi da, eta Argentinako gobernuak gizarte eta sindikatuaren aldarrikapenak isilarazteko bultzatutako errepresoari eta judizializazioari aurre egin nahi zaie.

Andaluziako Fundazioak Marokoko Iparraldean Prestakuntza Sindikaleko Programa bultzatu zuen. Programa CDTko (Confederation Democratique du Travail) kideei eman zitzaizen Maroko Iparraldeko hainbat probintzian: Tanger, Tetouan, Chefchaouen, Ksar El Kebir, Al Hoceima, Larache eta Nador.

Salaketa ekintzak

Herrialde Valentziarreko CCOOren ehun atal baino gehiagok parte hartu zuten zona frankoetan kokatutako maquila enpresetako sindikatuak babesteko kanpainan. Fundacio Pau I Solidaritat-ek bultzatutako kanpaina horrekin hainbat enpresetako giza baliabideen atalak kargutik kentzea lortu zen. Hitzarmena lortze aurretiko pausoa izan zen hura. Hitzarmenean maquila enpresetako langileek eskatutako 11 puntuetatik 9 jaso ziren.

Era berean, Madrilgo Bakea eta Elkartasuna Fundazioak "Red de DD.HH-Colombia" izeneko ekimena bultzatu du. Horren bidez, herrialde horretan Giza Eskubideen Defentsan diharduten pertsonak, Sindikatuetako liderrek eta Kolonbiako herritarrek etengabe jasan behar izaten dituzten eskubideen urraketak salatu nahi dira. Halaber, horien jarraipena egin nahi da, batez ere, posta elektronikoa eta Interneta erabiliz. Sareak lorpen garrantzitsuak izan ditu dagoeneko.

Sindikatuena arteko lankidetzaren hitzarmenak

Asturiaseko Bakea eta Elkartasuna Fundazioak honako erakunde hauen arteko lankidetzaren hitzarmena bultzatzen du: Asturiaseko Bakea eta Elkartasuna, Asturiaseko CCOO, Sao Pauloko CUT (Brasil), Pinar del Rioiko CTU (Kuba) eta Concepcionezko CUT (Txile). Hitzarmenaren helburuak dira, lan eskubideen aitortza indartzea, eskubide horien defentsan laguntzea eta Asturias eta Latinoamerikako langileen arteko trukea bultzatzea.

Bidezko Merkataritza

"Y tú ¿qué puedes hacer por un mundo más justo? Una cosa tan cotidiana como tomar un buen café" lemapean kanpaina bat egiten ari da kafea eta bidezko merkataritzaren beste produktu batzuk Kataluniako lantokietan jarritako makinetan saltzeko. Era berean, Madril, Aragoi eta Herrialde Valentziarreko Fundazioek CCOOren afiliatuena artean bidezko merkataritzaren produktuak saltzeko ekimenak bultzatu dituzte.



GLOSARIOA

AFL-CIO	<i>Estatu Batuetako Sindikatuen Konfederazioa</i>
CES	<i>Europako Sindikatuen Konfederazioa</i>
CIOSL	<i>Erakunde Sindikal Askeen Nazioarteko Konfederazioa</i>
CMT	<i>Laneko Mundu Konfederazioa</i>
CSI	<i>Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa</i>
CTA	<i>Argentinako Langileen Zentrala</i>
EB	<i>Europako Batasuna</i>
ETN	<i>Nazioz Gaindiko Enpresa</i>
FIP	<i>Kazetarien Nazioarteko Federazioa</i>
FITCM	<i>Eraikuntza eta Zurgintza sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioa</i>
FITIM	<i>Metalurgia Industriako Langileen Nazioarteko Federazioa</i>
FITVC	<i>Ehungintzaren, Jantzigintzaren eta Larrugintzaren sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioa</i>

FSI	Nazioarteko Sindikatuen Federazioak
FSM	Munduko Gizarte Foroa
FSM	Munduko Sindikatuen Federazioa
GGKE	Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea
IC	Komunikazioen Nazioartekoa
ICEM	Kimika, Energia, Meatzaritza eta Askotariko Industrien Nazioarteko Federazioa
IE	Hezkuntzaren Nazioartekoa
IED	Atzerriko Inbertsio Zuzena
ISP	Zerbitzu Publikoen Nazioartekoa
ITF	Garraioetako Langileen Nazioarteko Federazioa
LANE	Lanaren Nazioarteko Erakundea
MB	Munduko Bankua
MME	Munduko Merkataritza Erakundea
NBGP	Nazio Batuetako Garapenerako Programa
NDF	Nazioarteko Diru Funtza
NFT	Laneko Oinarrizko Arauak. Ezagunak dira ere, Laneko Nazioarteko Estandar, Laneko Nazioarteko Arauak edo Core Labour Estandars gisa
OCDE	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
ORIT	Herrialde Amerikarren arteko Laneko Eskualde Erakundea
UITA	Elikagaien eta Antzekoen sektoreko Langileen Nazioarteko Batasuna
UNCTAD	Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia
UNI	Union Network International
RCADE	Kanpo Zorra Abolitzearen aldeko Herritarren Sarea
TUAC	Sindikatuen Aholku Batzordea
ZFI	Industria Zona Frankoak



ESTEKA GOMENDAGARRIAK

Lanaren Begia Globalizazioan

<http://www.observatoriodeltrabajo.org>

Bakea eta Elkartasuna fundazioak eginiko web orri honen helburua lan egokia zaintzea eta horren alde egitea da, globalizazioaren testuinguruan eta nazioarteko sindikalgintzaren ikuspegitik.

CC.OO.

<http://www.ccoo.es>

Nazioarteko Sindikalgintza:

Global Unions- Munduko Sindikatuak

<http://www.global-unions.org>

CES - Europako Sindikatuen Konfederazioa

<http://www.etuc.org>

CSI - Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa

<http://www.icftu-csi.org>

ORIT - Herralde Amerikarren arteko Laneko

Eskualde Erakundea

<http://www.cioslorit.org/>

TUAC - Sindikatuen Aholku Batzordea

<http://www.tuac.org>

Nazioarteko Sindikatuen Federazioak:

FITCM - Eraikuntza eta Zurgintza sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioa
<http://zulu.worldcom.ch/ifbww/cgi-bin/spmain.cfm?ld=71>

FITIM - Metalurgia Industriako Langileen Nazioarteko Federazioa
<http://www.imfmetal.org/main/index.cfm>

FITTVIC - Ehungintzaren, Jantzigintzaren eta Larrugintzaren sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioa
<http://www.itglwf.org>

ICEM - Kimika, Energia, Meatzaritza eta Askotariko Industrien Nazioarteko Federazioa
<http://www.icem.org>

IE - Hezkuntzaren Nazioartekoa
<http://www.ei-ie.org>

ISP - Zerbitzu Publikoen Nazioartekoa
<http://www.world-psi.org/psi.nsf>

ITF - Garraioetako Langileen Nazioarteko Federazioa
<http://www.itf.org.uk>

UITA - Elikagaien eta Antzekoen sektoreko Langileen Nazioarteko Batasuna
<http://www.iuf.org.uk/es>

UNI -Union Network International
<http://www.union-network.org>

FIP - Kazetarien Nazioarteko Federazioa
<http://www.ifj.org>

Nazioarteko Erakundeak

NBE - Nazio Batuen Erakundea
<http://www.un.org/spanish/>

UNCTAD - Merkataritza eta Garapenari buruzko
Nazio Batuen Konfederazioa
<http://www.unctad.org>

NDF- Nazioarteko Diru Funtza
<http://www.imf.org>

MB - Munduko Bankua
<http://www.bancomundial.org>

FAO - Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen
Erakundea
<http://www.fao.org>

OCDE - Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako
Erakundea
<http://www.oecd.org>

LANE - Lanaren Nazioarteko Erakundea
<http://www.ilo.org>

MME - Munduko Merkataritza Erakundea
<http://www.wto.org>

NBGP - Nazoi Batuen Garapen Programa
<http://www.unpd.org>

EB - Europako Batasuna
<http://europa.eu.int>

Gizarte erakundeak

GGKEen koordinakundea
<http://www.congde.org>

Euskadiko GGKEen koordinakundea
<http://www.ongdeuskadi.org>

FSM - Munduko Gizarte Foroa
<http://www.forumsocialmundial.org.br/home.asp>

ATTAC - Herritarrei Laguntzeko Espekulazio
Transakzioen gaineko Tasa ezartzearen aldeko
Elkartea
<http://www.attacmadrid.org>

RCADE - Kanpo Zorra Abolitzearen aldeko
Herritarren Sarea
<http://www.rcade.org>

Zero pobrezia kanpaina
<http://www.pobrezacero.org>

Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa
<http://www.ccoo-euskadi.net/paz/paz.asp>

Sindikatu erakundeak

AFL-CIO - Estatu Batuetako Sindikatuen
Konfederazioa
<http://www.aficio.org>

CTA - Argentinako Langileen Zentrala
<http://www.cta.org.ar/principal.shtml>

Langileen elkartasun sareak

Labourstar
<http://www.labourstart.org/>

Solidar
<http://www.solidar.org/>

FIAET - Langileen Hezkuntzarako Elkarleen
Nazioarteko Federazioa
<http://www.ifwea.org/index.html>